



nare

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA
PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA
DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

Urtarrilaren 26tik 30era

JARRAIPEN BISITA

EL SALVADOR 2025

"Herri hau berriz ere borrokan"

***"Erregimen hau ez da salbuespenezkoa,
iraunkorra baizik, gure bizitzetan"***

Giza eskubideak defendatzen dituzten
erakundeak, Euskal Ordezkaritzarekin bilduta

2025eko martxoa

Txostenaren egilea:



nare

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA
DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS



JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

(zehar)
errefuxiatuekin



bakea eta alkartasuna
fundación paz y solidaridad




EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Txosten hau 2025eko martxoan idatzi zen. Edonola ere, data horretatik 2025eko ekainera, nabarmendu nahi genituzkeen gertaera batzuk gertatu dira.

Alde batetik, giza eskubideen defendatzaile diren pertsonen, erakundeen, komunitateen eta sareen **kriminalizazio-prozesu gero eta handiagoaren testuinguruan**, Cristosal-eko **Ruth López**en eta Foro del Agua-ko **Alejandro Henríquez**en atxiloketak salatu eta gure kezka adierazi nahi dugu. Euskal Ordezkaritza gisa, kasu horiek gainbegiratzeko jarraituko dugu, baita txosten honetan azaltzen diren **Fidel Zavala** eta **La Floresta**ren kasuak ere. Haien bizitzarako eta osotasun fisiko eta emozionalerako bermeak eskatzen ditugu, bai eta behar bezalako prozesuarekiko errespetua ere. Atxilotutakoak aske uztea eta herrialdean giza eskubideen eta pentsamendu kritikoaren defentsa errespetatzea eskatzen dugu.

Bestalde, sentitzen dugu eta kezka handia agertzen dugu **Atzerriko Agenteen Legea** onartu berri delako. Ezarpena gauzatzen bada, lege honek esparru demokratikoaren itxieran sakontzea eta gizarte zibilaren kriminalizazioan aurrera egitea ekarriko du.

2025eko ekaina



Edukien aurkibidea

1	Euskal Ordezkaritzaren osaera	1
2	Jarraipen-bisitaren planteamendua	2
3	Garatutako agenda	4
4	Eskertzak	6
5	Gizarte-erakundeek eta -mugimenduek bizi duten testuinguru orokorra	7
6	El Salvadorko erakunde publikoekin izandako trukeak	31
7	Gomendioak	38
8	Erreferentziak	42
9	1. Eranskina: Sindikatueta buruzagien espetxeratze-kasu nagusiak, salbuespen-erregimena aplikatzearen ondorioz egin direnak	44
10	2. Eranskina: El Salvadorren dagoen Euskal Ordezkaritzaren komunikatua	47

1 EUSKAL ORDEZKARITZAREN OSAERA

EUSKO JAURLARITZA

Jagoba Álvarez Ereño, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako zuzendaria.

Nerea Cambra Becerril, gizarte-langilea, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritza.

Maite Garmendia Eguinoa, lankidetzako teknikaria, eLankidetzak-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

Javier Galaz de la Torre, lankidetzako teknikaria, eLankidetzak-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

EUSKO LEGEBILTZARRA

Maitane Ipiñazar Miranda, Euzko Abertzaleak (Justizia eta Giza Eskubideen Batzordea eta Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzak Batzordea).

Oihana Etxebarrieta Legrand, Euskal Herria – Bildu (Justizia eta Giza Eskubideen Batzordea eta Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzak Batzordea).

Patricia Campelo Martínez, Euskal Sozialistak (Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzak Batzordea).

Juan Carlos Areizaga, Eusko Legebiltzarreko legelaria.

LANKIDETZARAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO ANTOLAKUNDEAK

Irene Molero Gurrutxaga, koordinatzaile nagusia, Euskadiko GGKEen Koordinakundea.

Mónica Bahillo Martínez, proiektuen teknikaria, Bakerako Lankidetzak Batzarrea (BLB).

Sonia González Martín, zuzendaria, Paz y Solidaridad Euskadi fundazioa.

Javier Canivell Fradua, zuzendaria, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak.

Leire Lasa Fernández, NAREko koordinatzailea, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak.



2 JARRAIPEN-BISITAREN PLANTEAMENDUA

NARE - Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa **elkartasun politikoa adierazteko tresna** bat da, eta giza eskubideen alde egiten duten lana dela-eta jazarpen- eta mehatxu-testuinguruetan lan egiten duten pertsonak eta kolektiboak **babesten laguntzea** du helburu. Lankidetzan eta elkartasunean diharduten EAEko erakundeen lanaren tresna osagarri bat da.

Babesa ANSUR kolektiboak definitzen duen moduan ulertzen dugu: pertsonak, erakundeak eta instituzioak bizitzeko eta lanerako espazio seguruak sortzeko eta zabaltzeko garatzen dugun ekintza-multzoa da. Osotasun fisikoaren, digitalaren, emozionalaren edo espiritualaren aurkako mehatxu posibleei aurre egiteko hainbat estrategia biltzen ditu, bai indibidualak, bai kolektiboak. Beraz, babesa ez da mehatxurik eza bakarrik; pertsonen, komunitateen eta kolektiboen ongizatea ere bada, bere alderdi guztiak kontuan hartuta.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzak gidatzen du NARE, eLankidetzaz-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntza dauka, eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundearen koordinazio teknikoa. NAREn, halaber, EHUKo eta Deustuko Unibertsitateko institutu akademikoek, lankidetzaren eta giza eskubideen EAEko erakundeak eta Eusko Legebiltzarrak parte hartzen dute.

Urtero, jarraipen-bisita bat egiten da lekuan bertan, giza eskubideen defendatzaileen eta haien kolektiboen babes-sarea indartzeko, eta Gobernuak, Legebiltzarrak eta euskal elkarteak duten babesa ikusteko, bai eta NAREn harrera egin zaien pertsonen egoera pertsonalaren eta komunitarioaren jarraipena egiteko ere. Garatutako agendan sartuta daude, hasiera batean, gizarte-erakunde eta -mugimenduekin biltzeko espazioak, non jakin baitaiteke nola dagoen herrialdeko giza eskubideen defentsa, bai eta beren eskaerak, salaketak eta proposamenak ere. Bigarren une batean, diplomatikoekin eta nazioarteko erakundeekin bilerak egin ditugu, jasotako informazioa kontrastatzeko eta herrialdearen egoeran sakontzen jarraitzeko. Azkenik, herrialdeko erakunde publikoekin egindako bileren helburua da giza eskubideen defendatzaileen babesari eta segurtasunari buruz jasotako kezka eta eskaera nagusiak helaraztea.

El Salvadorko bisita hau NAREn parte hartzen duten bi kolektibo hauen jarraipenaren barruan kokatu behar da: Las Incómodas Feministas kolektiboa eta Lan Justiziaren aldeko Mahai Iraunkorra. Hala, mugimendu feminista eta mugimendu sindikala izan dira bileren agendaren eta aztertutako gai nagusien ardatz nagusiak. Bi eremu horiekin batera, lurraren, lurraldearen eta ondasun komunen defentsa ere erdi-erdian egon da egindako topaguneetan, bizi duten arrisku-egoeragatik eta euskal lankidetzarekin eta elkartasunarekin duten loturagatik. Txostenean, kezka eta jarraipen bereziko kasu batzuk nabarmentzen ditugu, hala nola Beatriz kasua eta kriminalizazio-prozesu hauek: Santa Martako bost ingurumen-defendatzaileena, El Salvadorko Giza eta Komunitate Eskubideen Defentsarako Unitatearena (UNIDEHC), La Floresta komunitatearena eta Fidel Zavala giza eskubideen defendatzailearena.



Euskal Ordezkaritza hainbat erakunde eta sindikatu-talderekin

3 GARATUTAKO AGENDA

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak eta herritarren mugimenduak:

MUGIMENDU SINDIKALA

- Mesa Permanente por la Justicia Laboral (MPJL)
- Unión Nacional para la Defensa de la Clase Trabajadora (UNT)
- Unión Sindical de Trabajadoras y Trabajadores del Instituto de Desarrollo de la Mujer (USTTISDEMU)
- Sindicato de Trabajadores de la CONAMYPE (SITCO)
- Sindicato de Trabajadores de la Salud (SITRASALUD)
- Frente Magisterial Salvadoreño
- Federación de Sindicatos de Trabajadores Municipales de El Salvador (FESITRAMES)
- Movimiento para la Defensa de la Clase Trabajadora (MDTC)

GIZA ESKUBIDEEN ELKARTEAK

- Fundación de Estudios para la Aplicación del Derecho (FESPAD)
- Cristosal

LURRALDE-ERAKUNDEAK

- Movimiento para la Integración de las Luchas de los Pueblos Ancestrales (MILPA)
- Foro del Agua
- Red Nacional de Juntas de Agua
- Asociación de Radios y Programas Participativos de El Salvador (ARPAS)
- Asociación Comunitaria Unida por el Agua y Agricultura (ACUA)
- Reverdes – Movimiento Político Rebelión Verde
- Asociación de Mujeres Huizucareñas (AMH)

BLOQUE DE RESISTENCIA Y REBELDÍA POPULAR (BRRP) DELAKOAN ARTIKULATUTAKO ERAKUNDEAK

- Fuerza Estudiantil Salvadoreña (FES)
- Movimiento de Víctimas del Régimen (MOVIR)
- Resistencia Feminista
- Movimiento de Trabajadores Despedidos (MTD)
- Confederación de Federaciones de la Reforma Agraria Salvadoreña (CONFRAS)
- Unidad de Defensa de Derechos Humanos y Comunitarios de El Salvador (UNIDEHC)
- Movimiento Universitario de Pensamiento Crítico

MUGIMENDU FEMINISTA ETA MUGIMENDU SOZIALA

- Colectiva Las Incómodas Feministas
- Familiares de personas detenidas por el régimen de excepción
- Agrupación ciudadana por la despenalización del aborto
- Colectiva Feminista
- Red Salvadoreña de Defensoras
- Colectivo Alejandría
- Alerta Raquel
- Bloque de Búsqueda de Personas Desaparecidas en El Salvador
- Asociación Arco Iris Trans (ASPIDH)
- Asamblea Feminista
- Asociación Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM)
- Colectiva de Mujeres Kawoq
- Servicio Social Pasionista (SSPAS)
- Las Mélicas
- Asicultura
- Movimiento Universitario de Pensamiento Crítico
- Asociación Nayarit Mujeres y Juventudes
- Colectivo Cultura Trans
- Colectivo por los Derechos Sexuales y Derechos Reproductivos de Santiago Nonualco
- Asociación de Desarrollo Económico Social Santa Marta (ADES)
- Colectiva de Periodistas, Comunicadoras y Trabajadoras de la Información

Arlo akademikoa:

- Instituto de Derechos Humanos de la Universidad Centroamericana José Simeón Cañas (IDHUCA)
- Universidad de El Salvador (UES)

Erakunde publikoak:

- Ministerio de Trabajo y Previsión Social (MTPS)
- Consejo Nacional de Primera Infancia, Niñez y Adolescencia (CONAPINA)
- Procuraduría para la Defensa de los Derechos Humanos (PDDH)

Eskatu zen Estatuko beste erakunde batzuekin bilerak egiteko, baina ez zuten erantzunik eman. Beste batzuk azken unean bertan behera geratu ziren.

Kidego diplomatikoa eta nazioarteko erakundeak:

- Embajada de España en El Salvador
- Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID)
- Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Derechos Humanos (OACNUDH)

4 ESKERTZAK

Euskal Ordezkaritzako kideok, beste behin ere, gure **BABESA ETA ELKARTASUNA** erakutsi nahi diegu gurekin bildu diren erakunde eta mugimendu sozial guztiei. Aitortzen dugu zilegitasunez jardun dutela giza eskubideen, bizitza duinaren eta zigorgabetasunaren aurkako borrokaren defentsan. Eskerrik asko mugimendu feministari, mugimendu sindikalari, lurra, lurraldea eta ondasun komunak defendatzen dituzten erakundeei, ama bilatzaileei, gazteei, salbuespen-erregimenaren biktimei, kazetaritza kritikoari, akademiari eta sexu-aniztasunaren erakundeei. Eskerrik asko guztiei zuen duintasunagatik, eta proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak guri azaltzeagatik, eskuzabaltasunez.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, **Las Incómodas Feministas kolektiboari eta Lan Justiziaren aldeko Mahai Iraunkorrari**, haien jarraipenak eragin baitu jarraipen-bisita hau. Arreta berezia jartzen dugu beren segurtasun- eta babes-egoeran. Era berean, adi gaude ikusi nahi dugulako nola dauden Santa Martako bostak, La Floresta komunitatea eta Fidel Zavala giza eskubideen defendatzailea.

Egindako topaketa eta bileretan ikusi dugunez, gaur egun, etengabe gertatzen ari dira giza eskubideen defendatzaileen aurkako jazarpena eta haien aurka egindako indarkerien zigorgabetasuna.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, talde diplomatikoari eta herrialdean dauden nazioarteko erakundeei, bai eta harrera egin diguten estatuko erakundeei ere.



Euskal Ordezkaritza mugimendu feministako eta sexu-aniztasunaren aldeko hainbat erakunde eta kolektiborekin

5 ERAKUNDE ETA MUGIMENDU SOZIALEK BIZI DUTEN TESTUINGURU OROKORRA

2019ko ekainaren 1ean, Nayib Bukelek eskuratu zuen El Salvadorko Errepublikaren lehendakaritza, hauteskundeak babes handiz irabazi ondoren (% 53). Harrezkero, haren kudeaketa autoritarioa izan da, Estatuko beste botere batzuekiko konfrontazioan jardun du eta aurka egin die gobernu-ekintza kontrolatzeko tresnei, gardentasunari eta kontu-emateari.

2020ko otsailaren 9an, militarrek eta Polizia Nazional Zibileko agenteek lagunduta Biltzar Legegilean sartu zen, diputatuei exijitzeko mailegu bat onar zezatela, gaizkile-taldeen aurkako segurtasun-plan bat finantzatu ahal izateko. Urte bereko uztailan, Lurralde Kontroleko Plana hasi zen.

2021az geroztik, herrialdeko botere-banaketa oso txikia da. Biltzar Legegileak, Nuevas Ideas alderdi ofizialistaren kontrolpean dagoenak, Konstituzio Arloko Salako kideak eta Errepublikako fiskal nagusia izendatu ditu. Beste kontrol-erakunde batzuk, hala nola Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretza, argi eta garbi lerrokatuta daude diskurtso eta praktika ofizialistekin. Demokraziaren ahultze sistematiko eta iraunkor honek eta Gobernuaren esku dauden Estatuko hiru botereen kontrolak zigorgabetasuna sortzen dute herritarren aurkako oro har, eta giza eskubideak defendatzen dituzten eta, bereziki, erregimenarekiko ahots kritiko diren erakunde eta kolektiboen aurkako indarkeriaren arloan.

Gobernuak eta Nuevas Ideas alderdiak boterea zentralizatu nahi dute, eta hori ere herri-mailan islatzen da. 262 udalerritik 44ra murrizteak areagotu egiten ditu herritarrek administrazio-izapideak egiteko dituzten zailtasunak, murriztu egiten ditu toki-erakundeen baliabideak, eta horrek eragina du herritarren premien estalduran; gainera, kendu egiten ditu haiekin hitz egiteko espazioak.

Horren guztiaren ondorioz, gizarte zibilak, ikerketako kazetaritzak eta nazioarteko komunitateak bakarrik kontrolatzen dute gobernuak.

Prozesu-bermerik eza, independentzia judizialik eza eta biktimen babesgabetasuna dira Ordezkaritza honek bisitan aurkitu dituen arazo larri batzuk.

SALBUESPEN-ERREGIMENA

Salbuespen-erregimena asteburu bortitz bati emandako erantzun puntual gisa ezarri zen. Izan ere, asteburu hartan 87 pertsona erail zituzten, eta Gobernuak gaizkile-taldee (pandillei) egotzi zien erailketa haien egiletza. 2022ko martxoaren 27an, Legegintzako 333. Dekretuak salbuespen-egoera deklaratu zuen herrialde osoan. Harrezkero, begien bistakoa da El Salvadorko eguneroko errealitatean dezente gutxitu direla gaizkile-taldeen kriminalitatea eta indarkeria. Hala ere, aldi baterako neurri gisa sortu zena herritarren errepresioan, jazarpenean eta estigmatizazioan oinarritutako segurtasun-politikaren tresna bihurtu da.

Txostena argitaratu den datan, salbuespen-erregimenak indarrean jarraitzen du, konstituzio-bermeak mugarik gabe etenda mantentzen dituzten 35 luzapenen ondoren. Kontrol politiko eta sozialeko estrategia zabalago baten barruan, zenbait aldaketa egin dira lege eta erakundeetan, estatuaren hertsadura errazteko eta gobernuaren jardunaren gaineko kontrol-mekanismoak kentzeko.

2024ko ekainaren 1ean, Nayib Bukelek bigarren agintaldia bere gain hartu zuen (2024-2029), nahiz eta, boterea kontzentratzeko hauteskunde-sistema erreformatuta, Konstituzioak debekatzen zuen elkarren segidan bi aldiz hautatua izatea. Bukelek botoen %85eko babesarekin irabazi zituen hauteskundeak.

Bertsio ofizialistak segurtasunaren arrakastaren narratiba ezartzen du, baina Bukeleren gobernuak gero eta ahots kritiko gehiagori egin behar die aurre, bai barrutik bai nazioartetik zalantzan jartzen baitugu giza eskubideen urraketa larriak eragiten dituen politika hori. 2024ko ekainean, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH), Legegintzako Dekretua, haren luzapenak eta herrialdeko segurtasun-datuak aztertu ondoren, honako hau adierazi zuen: «Gaur egun ez dago eskubideak eta bermeak etenda mantentzea justifikatzen duen larrialdi-egoerarik, Amerikako Konbentzioaren eskakizunen arabera»¹. Hilabete batzuk lehenago, urte bereko martxoan, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen errelatoreak, Volker Türk jaunak, Giza Eskubideen Batzordearen 55. bileran, El Salvadorko Gobernuari eskatu zion zuzenbide-estatua defendatzeko, botere-banaketari eusteko eta kriminalitatearen aurka borrokatzeko, giza eskubideak errespetatzen dituzten neurriak baliatuta; askatasuna galdua duten pertsonen tratatu duina emateko ere eskatu zion.

[1] CIDH. El Salvadorko salbuespen-egoera eta giza eskubideak. OEA/Ser.L/V/II. Doc. 24-97. 2024ko ekainaren 28a.

Hilabete batzuk lehenago, urte bereko martxoan, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen errelatoreak, Volker Türk jaunak, Giza Eskubideen Batzordearen 55. bileran, El Salvadorko Gobernuari eskatu zion zuzenbide-estatu defendatzeko, botere-banaketari eusteko eta kriminalitatearen aurka borrokatzeko, giza eskubideak errespetatzen dituzten neurriak baliatuta; askatasuna galdua duten pertsonen tratu duina emateko ere eskatu zion. Aurretik, 2023an, beste errelatore berezi batzuek² adierazi zuten kezkatuta zeudela salbuespen-erregimena hedatuko ote zen, eta hura indargabetzea eskatu zuten. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak, Torturaren Aurkako Batzordeak eta NBEko Langile Migratzaileen Eskubideen Batzordeak iritzi bera izan dute, eta zenbait gomendio eman dituzte prozesu egokiari, torturari, atxiloteta-baldintzei, haurren eta nerabeen egoerari, giza eskubideen defendatzaileei eta gogoz kontra desagertutako pertsonen buruz, besteak beste.

Azkenik, 2025eko urtarrileko Aldizkako Azterketa Unibertsalean (EPU), NBEko Giza Eskubideen Kontseiluko estatu kideek 200 gomendio baino gehiago eman zituzten, besteak beste:

- Salbuespen-erregimena amaitzea eta konstituzio-bermeak berrezartzea.
- Bidezko epaiketen bermeak eta espetxe-baldintzak.
- Abortua despenalizatzea.
- Giza eskubideen defendatzaileen eta kazetarien babesa.
- LGTBIQ+ pertsonen eskubideen babesa.
- Talde zaurgarrien babesa, batez ere haur eta nerabeen kasuan.
- Nazioarteko tratatuak berrestea, hala nola bi hauek: Desagerpen Behartuen aurka Pertsona Guztiak Babesteko Nazioarteko Konbentzioa eta Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioaren Hautazko Protokoloa.

El Salvadorren egindako kazetaritza-ikerketek eta Estatu Batuetako agintarien ikerketa kriminalek agerian utzi dute ustezko Lurralde Kontroleko Plana "Itun" bat dela: adierazi dute negoziazio-prozesu bat eta akordioak egon daitezkeela Gobernuaren eta segurtasun handieneko kartzeletan dauden gaizkile-taldeetako liderren artean. Beste ebidentzia batzuen artean, dokumentazioa dago gaizkile-taldeetako liderren ospitaleetara egindako 749 irteerena, han egiten baitzituzten bilerak Gobernuako solaskideekin³.

[2] Nazio Batuen aditu-taldea, honako kide hauek osatua: Margaret Satterthwaite, Magistratuen eta Abokatuen Independentziari buruzko errelatore berezia; Fionnuala Ní Aoláin, terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko errelatore berezia; eta Morris Tidball Binz, judizioz kanpoko exekuzioei, sumariokoei edo arbitrarioei buruzko errelatore berezia.

[3] *Las 749 salidas de pandilleros de Zacatraz - Redacción Regional.*

Negoiazio horien nondik norakoak ez dira ezagunak, baina ikerketa horietatik ondorioztatzen da akordioak egin zituztela giza hilketak murriztearen arloan eta 2021eko hauteskundeei begira Nuevas Ideas alderdiari emandako hauteskunde-babesari buruz⁴.

Erregimenak onarpen zabala izan du iritzi publikoaren aldetik, eta, beraz, hauteskunde-kanpainaren elementu nagusi gisa erabili zen 2024ko otsailean. Hauteskunde-kanpaina horren ondorioz, Bukele presidentea berriz izan zen hautatua, eta berrautapen hura zalantzan jarri zen, Konstituzioaren aurkakoa zelakoan. Hala ere, José Simeón Cañas Erdialdeko Amerikako Unibertsitateko (UCA) Iritzi Publikoaren Unibertsitate Institutuaren inkesta batek, urtebeteko salbuespen-erregimenaren ondoren (hau da, 2023an), adierazi zuen biztanleriaren % 33,8k ezagutzen zuela bidegabeki atxilotutako pertsonaren bat, eta % 43k uste zuela errugabeak atxilotzea zela erregimenaren porrot nagusia.

2025eko otsailaren 1ean, Euskal Ordezkaritzaren bisita ofiziala amaitu eta hurrengo egunean, Batzar Legegileak berretsi zuen 2024ko apirilaren 30ean onartutako konstituzio-erreforma, orduan saio bakarrean eta kontsulta publikorik gabe egin zena. Berretsi egin zen, nahiz eta Konstituzioak debekatzen duen legegintzaldi berean egitea, eta harrizko klausulak ere aldatu zituen, hala nola 248. artikulua. Horrek bidea emango dio Bukele presidenteari Konstituzioa hurrengo legegintzaldian alda dezan.

Amnesty Internationalen arabera, erreforma horrek arrisku larrian jartzen du herrialdean giza eskubideak babestea: *"Konstituzioren aldaketak bi batzar legegileek onartzeko betebeharra kenduta, ofizialismoak bermatuta dauka Karta Nagusia aldatzeko bide bat, deliberazio-prozesu egokirik eta herritarren parte-hartzerik gabea. Justiziaren independentzia eta bidezko epaiketa bat izateko eskubidea sistematikoki ahulduta gertatzen diren honetan, neurri horrek erraztasunak eman litzake herritarren giza eskubideak are gehiago ahultzen dituzten erreformak ezartzeko"*.

ATXILOKETA ILEGALAK ETA ARBITRARIOAK, SISTEMATIKOAK ETA OROKORTUAK

Salbuespen-erregimenaren pean atxiloketa ugari egin dira. Agintariek «terroristatzat» jo diren 82.963 pertsona harrapatu dituzte, eta legez kanpoko elkarte bateko kidea izatearen delitua egotzi zaie, erakundeen datuen arabera. Kopuru horiek gorabehera, 4.435 su-arma eta 9.792 ibilgailu konfiskatu dira, eta horrek zalantzan jartzen du atxilotutako pertsona guztiak benetan "terroristak" direla (gaizkile-taldeetako kideak).

[4] *Gobierno pagó a pandillas por reducción de homicidios y apoyo a Nuevas Ideas - Revista Elementos*

UCAko Giza Eskubideen Institutuaren (IDHUCA), Zuzenbidea Aplikatzeko Azterlanen Fundazioaren (FESPAD) eta Cristosalaren datuen arabera, 2022ko martxoaren 27tik 2024ko ekainaren 30era giza eskubideen 6.426 urraketa-kasu dokumentatu dira, eta, gainera, gutxienez 244 heriotza gertatu dira zaintzapean, eta haietako askok indarkeria-zantzuak zituzten⁵.

Atxiloketak arbitrarioak eta masiboak dira, ez dituzte behar den prozesuaren bermeak betetzen eta Konstituzioarekin eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin talka egiten duten legegintzako dekretuetan babesten dira. Hori hala dela egiaztatu da ordezkari-tza honek herrialdean jaso dituen testigantzetan. CIDHeK dioen bezala, *"ezinbesteko berme judizialak ezin dira inola ere eten"*⁶.



Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako zuzendaria MOVIREko ordezkariekin.

[5] VV.OO. *El modelo Bukele: seguridad sin derechos humanos. El Salvador a dos años de régimen de excepción*. San Salvador, 2024.

[6] *Ibid.*, 8.

Giza eskubideen aldeko erakundeek (Cristosal, esaterako) artatutako kasuen, CIDHK jasotako elkarrizketa eta salaketan eta ordezkaritza honek izandako bilera eta topaguneen eredu nagusiak honako hauek dira:

- Prozesu penala errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratuz erabiltzea.
- Etxeak bortxatzea berme judizialik gabe.
- Harrapaketa-agindu administratiborik edo judizialik ez izatea.
- Egotzitako egitate eta delituei buruzko informaziorik eza.
- Komunikazioen sekretua bortxatzea.
- Salaketa anonimoetan oinarritutako atxiloketak.
- Indarra neurritz kanpo erabiltzea.
- Haurren eta nerabeen eskubideen urraketa larriak.
- Atxiloketen kontrol judiziala atzeratzea.
- Habeas corpus baliabidearen eraginkortasunik eza⁷.
- Egotzitako karguei laguntzeko froga-elementurik ez izatea.
- Abusuak prebentziozko espetxealdia ezartzean.
- Entzunaldi judizial masiboak egitea.
- Defentsa-eskubidea eta berme judizialak baliatzeko mugak.
- Askatasun-agindu judiziala izan arren espetxeetako funtzionarioen erabakiz espetxean jarraitzen duten pertsonak.
- Familiei ez zaie informaziorik ematen erabateko espetxeratze- eta inkomunikazio-lekuari buruz.

ESPETXEETAKO EGOERA

Estatistika eta Zentsuen Bulego Nazionalaren datuetan oinarrituta giza eskubideen erakundeek egin dituzten kalkuluen arabera, El Salvadorrek askatasuna galdu duten biztanleen tasa munduko tasarik altuena izan lezake: 1.728 pertsona 100.000 biztanleko, alegia, biztanleria orokorraren % 1,73 eta helduen % 2,46⁸. Socorro Jurídico Humanitario erakundearen kalkuluen arabera, 100.000 ume inguru abandonatuta geratu dira, guraso batek edo bi gurasoek askatasuna galdu dutelako.

[7] Según Cristosal, de marzo de 2022 a junio de 2023, se solicitaron 5.198 habeas corpus, pero sólo 3 han sido tramitadas.

[8] Ibid., 9.

Ume eta nerabeei hezkuntza jasotzeko aukera oztopatzen zaie, eta beren osasun fisiko eta emozionalean ondorio latzak jasotzen dituzte. Gainera, zaintza-lanetan gehiegizko zama dakarkie emakumeei, eta emakumeen eta familien pobretzea eragiten du.

El Salvadorko eta nazioarteko giza eskubideen erakundeek testigantzek eta ikerketek inhumanotzat jotzen dute hango espetxeen egoera. Espetxe horietan giza eskubideen urraketa larriak gertatu direla jakinarazi da. **Krisi humanitario** baten aurrean gaude:

- Larregizko pilaketa.
- Tortura, tratu anker eta apalesgarriak.
- Askatasuna galdu duten pertsonak esklabotza-baldintzetan eskulan gisa erabiltzea.
- Sexu-indarkeria, batez ere emakumeen kasuan.
- Adingabeen presentzia helduentzako espetxeetan (erakundeek arabera, 3.000 adingabe askatasunik gabe daudela kalkulatzen da).
- Baldintza gogaikarri eta osasungaitzak.
- Elikadura eskasa, familiak "saskia" eramatera behartzen dituen (presoek janaria ematea).
- Familiaren bisitak edo familiarekin harremanak izateko eskubiderik ez, kasu askotan familiek ez dakite-eta zer espetxetan dauden senitarteko dituzten presoak.
- Zaintzapeko heriotzak, Estatuak ikerketa egokirik egin gabeak.

Azken horiei dagokienez, ez dago datu ofizialik. Polizia Nazionaleko Zibilak sekretupean eman du giza hilketei eta desagerpenei buruzko informazioa, eta horrek eragotzi egiten du emandako datuak egiaztatzea. Gainera, indarkeria-indizeei buruzko informazioa aldatu denez, heriotza mota batzuk zifra ofizialetatik kanpo geratu dira.

CIDHeK jaso duen informazioaren arabera, erakunde horrek adierazi du **askatasuna galdua zuten 189 pertsonatik eta 200era hilda egon daitezkeela**, eta akats larriak egon daitezkeela kasu horiek ikertzeko orduan, bai eta senitartekoei jakinarazteko eta gorpuak maneatzeko prozedurei dagokienez ere. Giza eskubideen aldeko zenbait erakundek 2022ko martxoaren 27tik 2024ko otsailaren 29ra bitartean egindako monitorizazioaren arabera, kopuru hori gutxienez **244 pertsonakoa**⁹ da.

[9] Ibid., 9.

Espetxe-sistemaren edukierari dagokionez, informazio ofizialen arabera, 67.280 plaza inguru daude, eta horietatik 40.000 Terrorismoaren Konfinamendu Zentrokoak dira (CECOT). Zenbatetsitako biztanleriak plaza-kopurua gainditzen du, eta sistemaren instalazioetara, oro har, aitortutako ahalmenaren % 154 eramaten du. Baina, datuak bananduta, ikusi zen CECOTek bere ahalmenaren herena baino pixka bat gutxiagoko okupazioa baino ez zuela, eta espetxe-sistemaren gainerakoan, ordea, % 335eko jende-pilaketa zegoela.

Bukeleren erregimenak CECOT erabiltzen du gaizkile-taldeen aurkako gerraren arrakastaren publizitate-irudi gisa. Presoentzako espazio zabalak dituen megakartzela eraiki berri eta garbi baten irudi horrek kontrastatzen du herrialdeko espetxe-erregimenaren krisi humanitarioarekin.

DESAGERPEN BEHARTUAK

Salbuespen-erregimenak desagertu behartuen fenomenoak suspertzea ekarri du. Delitu mota horren aurrean gaude Estatuko agenteek (edo partikularrek, Estatuaren baimena dutela) pertsona bati askatasuna kendu ondoren horri buruzko informaziorik ematen ez denean jakiteko non eta nola dagoen pertsona hori.

Oro har, familiek ez dute atxilotuen egoerari buruzko informaziorik izaten, eta ez da bisitarik onartzen. Batzuetan, ez da jakiten zer espetxetan dauden, eta, kasu batzuetan, familiari ez zaio atxilotuaren heriotzaren berri eman, eta atxilotu hori hobi komun batean lurperatua izan da.

Errepublikako Fiskaltza Nagusiak, Prokuradoretza Nagusiak eta Justizia Ministerioak, ezer egiten ez dutenez, desagertutako pertsonen amak antolatu dira, bilaketak egiteko eta herrialdeak bizi duen krisia ikusarazteko. Ordezkaritza honek bere testigantza batzuk jasotzeko aukera izan zuen.

Beste indarkeria-ekintza batzuetan bezala, desagertu behartua izan duten pertsonetan ez dago kopuru ofizialik gaur egun.

ONGIZATE-SISTEMAREN HONDATZEA

"Segurtasunaren" diskurtsoaren aurrean, bizitzaren kostua handitu egin da (% 28 hiri-eremuetan eta % 26 landa-eremuan^[10]), eta pobrezia ere bai, batez ere muturrekoa (2019an % 22,8 izatetik 2023an % 27,2 izatera pasa zen)^[11]. Aurreko gobernuak utzitako 40 programa sozial eta ekonomikoetatik 31 kendu dira, eta beste 6 programatan baliabideak murriztu dira. Horrek guztiak eragina du herritarren elikaduran eta osasun fisiko eta emozionalean.

Jasotako testigantzek eta analisiek adierazten digute osasun-sistema eta hezkuntza-sistema pixkanaka okerrera egiten ari direla: osasun-zentroak ixtea, osasun arloko langileak kaleratzea, baliabideak murriztea eta, ondorioz, prebenitu daitezkeen gaixotasunak areagotzea; irakasleen kaleratzeak, nazio-mailako eskolak ixtea eta, oro har, narriadura eta mantentze-falta, analfabetismoa handitzea, hezkuntza-kalitate eskasa, lehen eta bigarren hezkuntzan sartzeko zailtasunak eta 32 milioi dolarreko zorra El Salvadorko Unibertsitatearekin (herrialdeko unibertsitate publiko bakarra).

	Presupuesto 2024 (11,993.9 mill con modificaciones)	Presupuesto 2025 (9,662.9 mill.)	Diferencia
Presidencia	132.0	139.7	7.7
Hacienda	165.8	93.4	-72.4
Relaciones exteriores	64.3	45.5	-18.8
Defensa Nacional	262.4	314.4	52
Gobernac. y Des. Territ.	309.9	283.7	-26.2
Justicia y Seguridad	713.8	589.0	-124.8
Educación	1,644.2	1,535.8	-108.4
Salud	1,325.9	1,170.4	-155.5
Trabajo y previsión social	17.6	14.9	-2.7
Cultura	48.3	27.5	-20.8
Vivienda	14.6	11.2	-3.4
Desarrollo local	39.9	37.3	-2.6
Economía	90.6	75.2	-15.4
Agricultura y ganadería	159.1	91.5	-67.6
Obras públicas	819.5	724.7	-94.8
Medio ambiente	20.4	15.8	-4.6
Turismo	55.8	41.5	-14.3

Erakundeek datu ofizialetatik abiatuta egindako grafikoa

[10] https://onec.bcr.gob.sv/ipc_consulta/ipc_dat.asp (2024ko martxora arteko datu ofizialak).

[11] Estadística eta Zentsuen Bulego Nazionala. 2019ko Encuestas de Hogares de propósitos Múltiples-en inkestak eta La Prensa Gráfica egunkariaren 2024ko apirilaren 11ko argitalpena.

Ongizate-sisteman egin den desinbertsio horrekin batera, gehikuntza bat gertatu da, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Lehendakaritzaren eta Defentsa Nazionalaren partiden gastuan eta ekitaldi handien antolaketan, hala nola Miss Universo 2023rena, eta Bitcoin City eta Surf City proiektuak sortu dira. Proiektu horiek Turismo Ministerioarenak dira, eta marketin-estrategia horien helburua da herrialdearen irudia kanpoan sustatzea, giza eskubideen egoera larriaren ondorioz sortu diren ahots kritikoaren gorakadari aurre eginez.

Ura eskuratzeari dagokionez, Baliabide Hidrikoei buruzko Lege Orokorrak (2022ko uztailetik dago indarrean) El Salvadorko Agintaritzak sortzen du, eta enpresa handiei baimena ematen die ura 15 urtez merkataritza-helburuetarako erabil dezaten (15 urte gehiagoz luzagarria), baina ez du mekanismorik ezartzen ekosistemak babesteko eta lehengoratzeko. Gainera, ur-hornidurako sare komunitarioei zerga bat ordaindu beharra ezartzen die. Hala, Estatua iristen ez den erkidegoetan ematen dute zerbitzua Ur Batzordeek, eta ura irabazi-asmoz erabiltzen duten enpresa handiek ordaintzen duten zenbateko bera ordaintzen ari dira. Orain arte, herrialdean dauden 2.500 ur-batzordeetatik 500 baino ez dira inskribatu Ur-baliabideen Erregistro Nazionalerako El Salvadorko Agintaritzan; enpresa pribatuak, ordea, 18.000 dira.

Azkenik, salbuespen-erregimenaren esparruan, Batzar Legegileak dekretuak onartu ditu Estatuak funts publikoak administratzeko aukera izan dezan, Administrazio Publikoaren Eskuratzeko eta Kontratazioen Legea errespetatu gabe. Horrek ustelkeria-ekintzei bidea ireki die, hala nola CECOT edo beste megaproiektu batzuk eraikitzeari, kostuen eta finantzaketaren gaineko gardentasunik ez duten megaproiektuak.

INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEA ETA GARDENTASUNA

Informazio Publikoaren Sarbiderako 2011ko Legea eduki arren, Bukelek informazio publiko gehiena erreserbatutzat jo du, eta gardentasuna eta kontu-ematea ahuldu ditu. Gainera, Informazio Publikoaren Sarbiderako Institutuak independentzia galdu du.

Egoera horrek zaildu egiten du El Salvadorko herritarrek jasaten dituzten indarkeria askoren datuak eta estatistikak ateratzea. Hala ere, giza eskubideen aldeko erakundeak dokumentazioa biltzen ari dira, nekez bildu ere, dokumentazioa baita, besteak beste, atxilotuak, desagerpen behartuak, feminizidioak eta poliziaren zaintzapean hil direnak ikertzeko eta salatzeke iturri nagusia. Lan horrek, askotan, arrisku-egoeran jartzen ditu.

Haien txosten asko erabili dira ordezkaritza honen bisita dokumentatzeko eta txosten hau datuetan oinarritzeko. Topaguneek eta bisitan bildutako testigantzek informazio hori berretsi eta zabaldu dute.

VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES Y LAS PERSONAS LGTBIQ+

Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen egoerak atzerakada larria izan du. Gai kezkarrienetako bat indarkeria matxistak eta LGTBIfobikoak dira. 2019 eta 2024 artean, gutxienez **580 feminizidio erregistratu ziren, eta El Salvadorko tasa hori Latinoamerikako altuenetako bat izan zen**. Soilik % 6k jasotzen dute zigorra, eta horrek zigorgabetasun orokortua eta Estatuaren ekintza eraginkorrik eza islatzen ditu.

Bertsio ofizialaren arabera, "segurtasunak" herrialdeko feminizidioen kopurua gutxitu du. Hala ere, zifrak mantendu edo handitu egiten dira, eta azpierreregistro bat dago, ezkutatuta dagoena desagerpen behartua izan duten pertsonen kopuruan.

Sexu- eta ugalketa-eskubideetarako sarbideak atzerapen nabarmenak izan ditu, eta horrek arrisku larrian jartzen du emakumeen eta LGTBIQ+ biztanleriaren osasuna. Abortuaren kausa guztien erabateko penalizazioak indarrean jarraitzen du, eta emakumeek oztopo handiak eta kriminalizazioa izaten dituzte sexu-osasuneko eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak baliatzeko orduan. "Maitasunez hazi" bezalako lege ultrakontserbadoreek amatasunerantz bideratzen dute emakumeen bizitza. Indarkeriaz inposatzen da familia-eredu kontserbadorea eta heteronormatiboa, arrisku larrian jarritz emakumeek eta LGTBIQ+ pertsonak beren gorputzari eta bizitzari buruz erabakitzeke duten eskubidea. Emakumeen, neskatoen eta nerabeen desberdinkeria eta babesgabetasuna indartzen duen diskurtso misogino bat sustatzen da, bai eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako gorroto-diskurtsoak ere, diskriminazioa, jazarpena eta haien aurkako indarkeriak justifikatzen dituztenak.

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CoIDH), **Beatriz y otros Vs.** kasuan emandako epaia. **El Salvador**¹² mugarri garrantzitsua da abortu segurua izateko eskubidearen defentsan, baina hura ezartzea erronka bat da oraindik ere. Urteetan Beatriz eta haren familiarekin mobilizazio feministan ibili ondoren, CoIDHk El Salvadorko Estatuak kondenatu du Beatrizek osasunerako, babes judizialerako, bizitza pribaturako eta Beatrizen beraren nahiz haren familiaren segurtasun pertsonalerako dituen eskubideak urratzeagatik.

[12] El Salvadorko landa-eremu bateko emakume/ama gazte bat, muturreko pobrezian bizi eta lupusa zuena, El Salvadorko Estatuaren aurka borrokatu zen bigarren haurdunaldi bat eteteko, produktua anentzefaliko gisa diagnostikatu ondoren. Malformazio horrek garezurra eta garuna garatzea eragozten du, eta umetokitik kanpo bizitzea oztokatzen du: <https://justiciaparabeatriz.org>.

Era berean, onartu zuen arrisku handiko haurdunaldiei arreta emateko protokolorik ez zegoenez, abortua erabat debekatuta zegoen testuinguru batean, agintariek ezin ziotela tratamendu mediko egokirik eskaini Beatrizi, eta indarkeria obstetrikoa pairatu zuela. Epaia El Salvadorko Estatuari agintzen dio beharrezko arau-neurriak har ditzala **abortu seguruko** zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko, emakumeen bizitza eta osasuna arriskuan jartzen duten haurdunaldien kasuan. Beatrizen kasua egunero indarkeria obstetrikoa pairatzen duten El Salvadorko emakume askoren kasua da. Erakunde feministen arabera, indarkeria hori modu kezkagarrian zabaltzen ari da.



La Delegación Vasca con la familia de Beatriz

Beste arazo larri bat **ume eta nerabeen haurdunaldi kopuru handia** da. Azken lau urteetan, 51.000 haurdunaldi-kasu baino gehiago jakinarazi dira 19 urtetik beherakoen artean, haietako asko bortxaketen ondorio. Kopuru kezkagarri horiek gorabehera, Gobernuak ez du politika publiko eraginkorrik ezarri adingabeak babesteko eta sexu-indarkeria prebenitzeko, eta sexu-hezkuntza integraleko edozein ekimen kendu du eskola-curriculumetik.

Salbuespen-erregimenak dakarren zigorgabetasunaren eta eskubide-desagertzearen logikak Estatuko Segurtasun Indarrek askotan eragindako **sexu-indarkeriaren kasuak areagotzea** ekarri du, atxilotutako emakumeek pairatu dutena, esaterako. Landa-eremuko komunitateetan, militarizazio handiko testuinguru honetan, salbuespen-erregimenaren parte gisa ezarritako inguratze militarrekin, emakumeen aurkako mehatxuen eta sexu-erasoen berri ematen da.

Generoari eta biktimen arretari buruzko politika publikoak edukiz hustu eta pixkanaka desagertu dira, eta horrek baliabideak eskuratzeko eta babes egokia izateko aukerarik gabe utzi ditu emakume asko eta LGTBIQ+ pertsonak. Funtsezko programak kendu dituzte, hala nola Ciudad Mujer programa, arretazentroetan aplikatzen dena (arretazentroen kopurua sekula baino murriztuago dago), eta El Salvadorko Emakumearen Institutua (ISDEMU) desfinantzatzen eta bertako langileak kaleratzen ari dira, eta horrek aterpeei eta sentsibilizazio-kanpainei eragiten die. ISDEMUK San Salvadorren baino ez du egitura; herrialdearen gainerako eskualdeetan, bulegoak erabat desagin dituzte.

Kanpaina politikoen ezaugarri nagusia emakume hautagaien aurkako eraso misoginoak dira. La Prensa Gráfica (LPG) egunkariaren azterlan batek agerian utzi zuen 39.000 eraso izan zirela azken hauteskunde-kanpainan. Haien parte-hartzea txikia da oraindik. Azken udal-hauteskundeetan, hautagaien % 18,5 baino ez ziren emakumeak. Batzar Legegilean, emakume diputatuak % 35 dira, gehienak Nuevas Ideas alderdikoak, eta banaka batzuk beste alderdi batzuetakoak.

LGTBIQ+ pertsonen kasuan, lege-esparru integralik eta politika inklusiborik ez izateak betikotu egiten ditu haien aurkako diskriminazioa eta indarkeriak, bazterketa- eta babesgabetasun-giro sistematikoa sendotuz eta zigorgabetasuna elikatuz, zeina indartu egiten baita aurrejuzguengatik eta justizia-erakundeetan protokolorik ez dagoelako. 2019 eta 2023 artean, LGTBIQ+ pertsonen 30 hilketa baino gehiago erregistratu ziren, ikaragarritzko krudelkeriaz egindakoak, eta 64lek beste norabait joan behar izan zuten bizitzera, indarkeria horien ondorioz.

Transexualak zaurgarritasun handieneko egoeran daude, eta prekarietatean bizi dira, eta nekez jasotzen dituzte lan-aukerak, osasun-zerbitzu egokiak eta hezkuntza inklusiboa.

Gainera, osasun-sisteman egindako murrizketek metodo antikonzeptiboen gutxitzea eragiten dute klinika publikoetan, eta GIBa duten pertsonak ez dute erretrobiralik. Termino diskriminatzaileak eta ikusezin-bihurtzaileak erabiltzen dira gayak eta gizon transak aipatzeko: gaur egun, «GIBaren prebalentzia handiko gizonak» izenarekin katalogatuta daude, eta estatistika ofizialetan ez dira agertzen.

ADIERAZPEN-ASKATASUNARI EGINDAKO MURRIZKETAK

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta komunikabide alternatibo eta independenteek salatzen dute kazetarien aurkako jazarpen-kopuruak gora egin duela eta gune kritikoak itxi egin dituztela. Mehatxuek, jazarpen digitalak, zentsurak, lege murriztaileen onarpenak eta presio ekonomikoak, besteak beste, beldurrezko eta segurtasunik gabeko giroa sortu dute, eta, askotan, autozentsura eragin dute prentsa independentean, babes-estrategia gisa.

2019 eta 2023 artean, El Salvadorko Kazetarien Elkarteak (APES) komunikazioko profesionalen aurkako 929 eraso erregistratu zituen, haietako asko Gobernuako funtzionarioek edo haren jarraitzaileek eginak. Emakume kazetarien kasuan, APESk 96 eraso erregistratu zituen 2023an, eta 52, ordea, 2024an, hauteskundealdian. Sare sozialak erasoen eta zigorgabetasunaren gune bihurtu dira.

2022an, Zigor Kodearen erreforma bat onartu zen, zeinaren arabera 15 urtera arteko kartzela-zigorra ezartzen baitzaio gaizkile-taldeek mezuak hedabideetan zabaltzeari; neurri hori kritikatu izan da arbitrarioki erabili izan delako kazetari eta hedabide independenteen aurka. Gainera, salbuespen-erregimena dela-eta zenbait pertsona atxilotu dituzte sare sozialetan argitaratu dituztelako Gobernuaren politikak kritikatzeko dituzten mezuak.

Azkenik, komunikabide independenteek jazarpen ekonomikoa eta administratiboa pairatu dute. Zerga-jazarpenak, Estatuko publizitate-kontratuen eteteak eta informazio-blokeoak, besteak beste, El Faro, GatoEncerrado eta Factum aldizkarien iraunkortasuna kaltetu dute, Gobernuari buruz iritzi kritikoa baitute.

Gainera, Trump aginteaz hasteaz batera, Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuen Agentziak (USAID, ingelesezko siglen arabera) finantzaketa eten zuen, eta horrek kalte handia egin die giza eskubideen erakundeei oro har, eta komunikabide independenteek bereziki, hala nola APES eta Voz Pública.

HEZKUNTZAREN EGOERA

Goi-mailako Hezkuntza

El Salvadorko Unibertsitateak (UES), herrialdeko unibertsitate publiko bakarrak, adierazi du Hezkuntzaren Lege berria dela mehatxu handiena. UES Konstituzioan sartuta dagoen arren, lege horrek ez du aipatzen, eta aurrekontu-esleipena erabilgarritasunaren arabera egingo dela ezartzen du. Gaur egun, Estatuak 32 milioi dolarreko zorra du UESekin, eta, ongizate-estatua ahultzeko dinamikan, 144 milioiko aurrekontu izoztua, nahiz eta behar baino ikasle gehiago izan.

Salbuespen-erregimenaren esparruan, atxiloteta-kuotak ezarri zaizkie polizia-unitateei, eta, gutxienez, UESko sei ikasle atxilotu dituzte arbitrarioki. Familiak beldur dira kaosik eragingo dutela.

José Simeón Cañas Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutua (IDHUCA) erakunde pribatua da. Hala, ez dute Estatuaren funtsik jasotzen, eta askatasuna dute beren ikasketa-planak definitzeko, nahiz eta Hezkuntza Ministerioaren onespena behar duten. Adierazi dute Nayib Bukele karguaz jabetu zenetik Gobernuaren eskua urrunago iristen dela. Lehen eta bigarren hezkuntzan bezala, curriculum akademikoetan ere kendu dituzte sexu-eskubideei eta ugalketa-eskubideei edo generoan oinarritutako indarkerien prebentzioari buruzko edukiak, eta ekoizpenerako eduki teknikoari eman zaio lehentasuna. Curriculum akademikoa Estatuaren proposamen politikoa da.

Ikerketa akademikoei dagokienez, zifra ofizialik ez egotea salatu dute, bai eta autozentsura inposatzea ere, gero eta kontrakoagoa den giro batean. Informazio baliotsua (adibidez, herritarrek ustelkeriari buruz duten pertzepzioa) duten azterlanak dituzte, baina ezin dituzte zabaltu, ikerketa-taldeek beldurra dutelako. Diotenez, egoera horrek luzaro izango du eragina gizartean, duen izu-iragana dela eta.

Azkenik, adierazi dute ez daudela oso urruti Nikaraguako UCAREN egoera bera bizitzetik, erregimenaren zerga-jazarpenagatik itxi baitzen. Eta laguntza zehatzak eskatzen dizkiete kanpoko unibertsitateei eta unibertsitate-sareei.

Lehen eta Bigarren Hezkuntza

Gurekin hitz egin duten irakasleek emandako datuen arabera, 2025ean 25.000 ikasle gutxiago daude sektore publikoan, eta antzeko zifra bat dago sektore pribatuan. Datu hori otsailaren 20an berretsi zuen Hezkuntza Publikoko Irakasleen Sindikatuko (Simeduco) idazkari nagusi Francisco Zeladak, Telecorporación Salvadoreña telebistaren "Frente a Frente" programan egin zioten elkarrizketa batean.

Otsailaren 19an, Alemaniak El Salvadorren duen Enbaxadak publikoki jakinarazi zuen "El Bambú" komunitatearen ikastetxea itxi zela (Izalco, Sonsonate Este). Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Ministerioak (MINEDUCYT) azalpen ofizial bat eman behar izan zuen, Enbaxadak 2023an lagundu baitzuen birmoldatzen. MINEDUCYTEk argudiatu zuen erabakia barrutiko bi eskola bateratzeko hartu zela.

Otsailean bertan, Simeduco sindikatuak jakinarazi zuen 30 ikastetxe baino gehiago itxi zirela herrialde osoan. Informazio hori Frente Magisterial Salvadoreño sindikatuak ere babestu du. Hezkuntza Ministeriorako aurrekontu-murrizketek larriagotu egiten dute krisia, zeina landa-eremuetako eskoletan ikusten baita.

2022an, El Salvadorko Gobernuak *"Mi Nueva Escuela"* programa iragarri zuen, bost urteko epean 5.150 ikastetxe berritzeko helburuarekin. Hala ere, 2024ko azaroaren amaieran egindako Estatuari eta Demokraziari buruzko Nazioarteko Konferentziaren esparruan, Mauricio Pineda Hezkuntzako ministroak berak adierazi zuen 180 eskola baino ez direla konpondu bi urtean. Hori guztizkoaren % 3,49 baino ez da. Programaren arabera, 2024ko abendurako 2.317 eskola amaitu behar ziren (guztizkoaren % 45).

Horri MINEDUCYT-en aurrekontuaren murrizketa ekonomikoa gehitu behar zaio. Horren ondorioz, arlo horretako inbertsioa da 2020ko BPGarekiko ehunekorik txikiena.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA

Azken urteotan, giza eskubideen defendatzaileekiko etsaitasuna areagotu egin da. Sexu-eskubideen eta ugalketa-eskubideen defentsa, feminismoa, sexu-aniztasuna, ingurumenaren defentsa, kazetaritza kritikoa, lan sindikala eta edozein adierazpen publiko kritiko edo oposizioko jazartzen ari dira. 2022an salbuespen-erregimena ezartzearekin batera, egoera hori larriagotu egin da modu kezkarrian. Mehatxu horietako asko familietara hedatzen dira (gurasoak, seme-alabak...), borroka kolektiboen desmobilizazioa lortzeko tresnatzat hartuta.

Giza eskubideen erakundeek egindako txostenen arabera, gutxienez giza eskubideen 34 defendatzaile atxilotu dituzte, erregimena hasi zenetik gaur egun arte¹³.



Euskal Ordezkaritza Erresistentzia eta Herri Errebeldia blokearekin

UNIDEHCen eta Fidel Zavala giza eskubideen defendatzailearen kasua

2025eko otsailaren 25ean, Fidel Zavala, Giza eta Komunitate Eskubideen Defentsarako Unitateko (UNIDEHC) bozeramailea (Ordezkaritza honek elkarrikeria-saioak izan zituen harekin), El Salvadorko agintariek arbitrarioki atxilotu zuten operatibo batean. Operatibo horretan, UNIDEHCen egoitza ere bortxatu zuten, Ivania Cruz abokatuaren etxebizitza (erakundeko zuzendaria), eta La Floresta komunitateko 20 lider baino gehiago atxilotu zituzten.

[13] *Ibid.*, 9.

Zavalaren atxiloketa bereziki kezkarria da, espetxeetako torturen lekuko eta salatzaile izan baita, eta goi-kargudunak eta zaintzaileak seinatu baititu. 2024ko uztailaren 17an, UNIDEHCek, Zavala jaunaren bidez, prozesu bat ireki zuen Fiskaltzaren aurrean, Segurtasun Publikoko ministrorde eta Zentro Penaletako zuzendari nagusi Osiris Luna jaunaren eta "La Esperanza" Zentro Penaleko ("Mariona" izenez ezaguna) eta Santa Anako Betetze eta Errehabilitazioko Zentro Industrialeko zuzendarien aurka, tortura, ustelkeria, ekintza arbitrarioak eta betebeharren ez-betetzea zirela eta.



Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimen zuzendariak UNIDEHCen txostena jaso du

MUGIMENDU FEMINISTA ETA SEXU-ANIZTASUNARENA

Mugimendu feministek eta sexu-aniztasunaren aldekoek Euskal Ordezkaritzarekin bilerak egin zituzten, eta kontatu zieten etsai-giro errepresibo batean bizi direla. Bukele karguaz jabetu zenetik, areagotu egin dira giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen, kazetarien eta aktibisten aurkako erasoak eta kriminalizazioa. Jazarpen fisiko eta digitalari eta difamazio- eta mehatxu-kanpainei aurre egin behar diete, haiek beldurtu eta haien lana deslegitimatu nahi dutelako.

Erakunde feministek gobernu-batzorde bat sortu izana salatzen dute, desakreditatu eta jazarri nahi dituztelako, GKE "fatxada" gisa etiketatuz.

Red Salvadoreña de Defensoras izeneko sareak 1.176 eraso erregistratu ditu 2020 eta 2022 artean, eta igoera nabarmena izan du martxoan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren ondoriozko mobilizazioen ondorioz. Defendatzaileen aurkako Erasoen Mesoamerikako Erregistroak giza eskubideen defendatzaileen aurkako 188 eraso dokumentatu zituen 2023an El Salvadorren. Gehienak bitarteko digitalen bidez egin ziren, eta, batez ere, sexu- eta ugalketa-eskubideen defendatzaileei eragin zieten (% 62).

Beste gai larri batzuen artean, mugimendu feministak adierazi du osasunaren sektorean tazituki debekatuta dagoela emakumeen aurkako sexu-indarkeria salatzea; osasun-arloko langileen artean isiltasuna eta biktimak erruduntzat jotzen duen kontaera nagusitu dira. Eta salatu dituzte ideologia faxista duen mugimenduaren gorakada globala eta herrialdean zenbait pintadak duten presentzia, hain zuzen ere esbastikak eta sinbologia nazia dituzten horiena.

MUGIMENDU SINDIKALA

Erakunde eta kolektibo sindikalek salatu dute 2019-2024 aldian sektore publikoko 25.000 langile kaleratuak izan zirela. Behar zen prozesua bermatu ez duten prozedura irregularretan egin ziren kaleratzeak, aldeaz aurretik azterketarik egin gabe eta dagozkien kalte-ordainak eman gabe. Kaleratze horiek biztanleriari ere eragiten diote, ikusten dutelako zerbitzu publikoak murriztu egiten direla eta zerbitzu horiek eskuratzeko aukera murriztu egiten dela.

Egoera hori idazkaritzetan hasi zela jakinarazi digute. Ciudad Mujer programaren Gizarteratzeko Idazkaritzan, adibidez, kaleratze masiboek 500 pertsona ingururi eragin zieten, gehienak emakumeak. Irregularutasun larriak gertatu ziren, hurrengo urteetan kopiatu zirenak: azterketa teknikorik egin gabe plazak kentzea, bai eta haurdun dauden emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak edo gaixotasun kronikoak dituztenak kaleratzea ere. Gero, alkatetzak datoz, haiek desagertzearekin eta tokiko boterea Gobernuaren esku jartzearekin bat etorri.

Bereziki kezkagarriak dira Estatuko sindikatuen zuzendaritza-taldeek kaleratzeak, sindikatuen forua ez betetzearen ondorio direlako; foru hori figura juridiko bat da lan-eskubide kolektiboak defendatzeagatik errepresalietatik babesten dituen; edo haurdun dauden estatuko langileen eta trans

emakumeen kaleratzeak. Kaleratze horiek, praktikan, Estatuko egitura sindikala ahultzea eta desegitea dakarte; izan ere, gerta litezkeen errepresaliek, atxiloketek edo lider sindikalen espetxeratzeek sortzen duten beldurraren ondorioz, langile asko desafiliatzen dira azkenean.

Adierazi dute, baita ere, Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioak kredentzialak berandu entregatu dituela eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) zenbait hitzarmen ez direla bete.

2024ko urriaren 19an, osasunaren eta hezkuntzaren sektoreetako sindikalistak eta langileak kaleetara atera ziren, "Martxa Zuria" izenekoan, Estatuko aurrekontu-murrizketaren aurka zeudela esatera. Murrizketa horren bidez, 2025erako soldatak izoztu nahi ziren. Martxa horren ondoren, bi sektoreetako 60 pertsona gutxienez kaleratu dituzte, eta dokumentatu izan dira kriminalizazio- eta larderia-ekintzak eta izen ona zikintzeko kanpainak.

Salbuespen-erregimenaren esparruan, sindikalistek eta sindikatueta zuzendaritza-taldeetakoek atxiloketa arbitrarioak pairatzen dituzte, oinarritzko lan-eskubideak eskatzen dituztelako, hala nola soldata edo lan-segurtasuneko eta -osasuneko gutxienezko baldintzak (arropak eta segurtasun-tresnak ematea). Atxiloketa haietako batzuen ezaugarri komuna da Nuevas Ideas alderdiak gobernatutako udalerriekin lotuta daudela (Soyapango, San Marcos, Mejicanos, San Salvador, Cuscatancingo, Ciudad Delgado, Panchimalco); haiekin laneko gatazka-prozesuak zeuden.

1. Eranskinean, **salbuespen-erregimena aplikatzearen ondorioz espetxeratutako buru sindikalen kasu nagusien zenbaketa** aurkezten dugu.

Ateratze arbitrarioak

Aterarazte arbitrarioek milaka familiari eragin diete herrialdeko zenbait eskualdetan. Kasurik enblematikoenetako bat izan da saltzaileak San Salvadorko erdi aldetik masiboki ateraraztea. Uste da neurri horrek gutxienez 35.000 saltzaileri eragin diela, eta ez dutela birkokatzeko edo konpentsatzeko alternatiba bideragarririk jaso. Landa-eremuan, nekazari-komunitateen eta kooperatibisten lurak desjabetzea sustatu da.

Modernizazioa eta hiri-antolamendua argudiatuta, korporazio eta garatzaile turistiko handien interesak ezkututzen dira, gehiengo sozialen ongizatearen kalterako. Proiektu batzuk, esaterako, Surf City, Pazifikoko Trena edo Pazifikoko Aireportua gizarte-gatazkak sortzen ari dira.

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak indarra neurritz kanpo erabiliz utzarazteko erabili izan dira, eta horrek giza eskubideen abusuen eta urraketen salaketak eragin ditu.

Utzarazteek larriki eragin diete biztanle ahulenei, eta beren lurren eta bizirauteko lan-eremuen mende zeuden milaka pertsonaren desberdintasuna eta pobretzea areagotu dituzte.

LURRAREN, LURRALDEAREN ETA ONDASUN ERKIDEEN DEFENTSA

2017ko martxoaren 29an, El Salvador munduko lehen herrialdea izan zen meatzaritza metalikoa debekatzen. Hainbat urtez komunitate eta erakunde sozialek tokiko kanpainak, martxak eta ekintzak egin ondoren, Batzar Legegileak lege historiko bat onartu zuen.

2024an Metal-meatzaritzaren Lege Orokorra onartu zenean, debeku hori kendu zen, eta, beraz, ingurumen osasungarrirako, elikadura-subiranotasunerako eta ura izateko giza eskubiderako eskubidea ere kendu zen, eta horrek mehatxu larriak dakartzkio lurraldeetan duin bizitzeari:

- Uraren eta lurzoruen kutsadura.
- Funtsezko jarduera ekonomikoak lekuz aldatzea, batez ere emakumeen kasuan.
- Sexu-esplotazioa eta genero-indarkeria areagotzea.
- Lan gehiegi emakumeek egiten duten zaintza-lanean.
- Lekualdatze behartuak eta utzarazteak, erauzketa-megaproiektuak inplementatzeko interesa dela-eta.
- Ingurumenaren defendatzaileak kriminalizatzea.

Santa Martako bosten kasua

2023ko urtarrilaren 11n, Alejandro Laínez García, Miguel Ángel Gámez eta Pedro Rivas Laínez, Santa Martako komunitateko liderrak eta ingurumen-defendatzaileak, eta Antonio Pacheco eta Saúl Rivas Ortega, "Santa Marta" ADES Garapen Ekonomiko eta Sozialeko Elkarteko ordezkariak atxilotu zituzten, barne-gatazka armatuaren esparruan 1989an emakume bat hiltzeagatik.

Sensuntepeque hiriko Epai Auzitegiak aho batez absolbitu zituen, hamahiru hilabetez etxeko atzipenaldian eman ondoren. 2024ko azaroaren 25ean, Cojutepeque hiriko Zentroko Bigarren Ataleko Ganberak erabaki hori baliogabetu zela jakinarazi zuen, eta kasua beste auzitegi baten aurrean irekitzeko agindu zuen.

San Vicenteko Epai Epaitegiak eten egin zuen 2025eko otsailaren 3-6rako aurreikusitako ikustaldi publikoaren entzunaldia, bost lider komunitarioak ez zirelako epaiketara azaldu. Entzunaldiaren hasieran, ordezkari batek gutun bat irakurri zuen, non erabakia azaltzen baitzuten, bidezko epaiketa baten bermerik ez zegoelako: *"Gu errugabeak gara, eta ez dugu baliozkotzat jo nahi agintzen duen erregimenak hautatutako justizia-sistemaren fartsa bat, ez baitu inolako bermerik ematen prozesu egoki baterako, ez eta gure segurtasun eta osotasunerako ere"*. Era berean, salatu zuten 2024ko abenduan jakin zela Fiskaltzak «kasu berri baten muntaia» egiten zuela Santa Martako liderren aurka, eta pertsona horien artean prozesu judizial horretako bost pertsonak zeudela.

Entzunaldia apirilaren 9, 10 eta 11rako birprogramatu zen. Entzunaldian, Fiskaltzak liderrak harrapatzeko eskatu zuen, eta horrek berretsi egin zuen haiek eta erakundeek zuten beldurra. Gaur egun, haiek bilatzeko eta atxilotzeko lanean dabilta.

2025eko otsailaren 5ean, ADES Santa Martak komunikatu publiko bat igorri zuen, honako hauek salatzen zituena:

- San Vicenteko Epai Epaitegiaren erabakia, prozesu penala luzatzea helburu duen luzapen-akzio gisa; izan ere, Zigor Kode Prozesalaren erreforma berriek ikustaldi publikoko entzunaldiak egitea ahalbidetzen dute, akusatuak bertan egon gabe.

- Epaiketa bikoitzak zigor-prozesu egokiaren printzipioa urratzen du, haren arabera inor ezin baita bi aldiz epaitua izan kausa beragatik.
- Auzitegiaren independentzia ezaren zantzu kezkagarriak; izan ere, ordezkaritza fiskalaren presioagatik, nazioarteko behatzaileen presentzia eragozten saiatu zen.

ADES Santa Martako pertsonak Euskal Ordezkaritzari adierazi zioten sentitzen zutela egungo testuingurua Barne Gatazka Armatua hasi aurreko uneen antzekoa zela (CAI 1979-1992).



Euskal Ordezkaritza ADES Santa Martarekin

Lurrak kentzea eta nekazarien eta indigenen sektoreak kriminalizatzea garapen-proiektuengatik

2024an, handitu egin dira landako eta itsasoko langileei (nekazaritza, abeltzaintza eta bilketa) bizi-baliabideak kentzeko ekimenak, nekazariei lurrak kenduz eta arrantza eta artisau-bilketa kriminalizatuz.

Erauzketako eta estatuaren garapeneko politika ekonomikoak, hala nola kapital publiko eta pribatuko mega proiektuak (Pazifikoko aireportua, Surf City 3 zirkulu turistikoa, Isla Icacal hotel-konplexua, Playa Escondida eta Conchagua Power zentral energetikoa) murrizten ari dira indigenen eta nekazarien ekoizpenaren nekazaritza-muga, artisau-arrantzaleen desplazamendua eta molusku-biltzaileen kriminalizazioa. Bakarrik El Salvadorko ekialdeko itsas kostaldean, batez beste 111.000 hektareatan, 825 nekazari-familiak eta arrantzale-familiak dituzte luraren edukitzari lotutako gatazkak, gobernu-erakundeekin eta enpresa-taldeekin, zeinak komunitate osoak desintegratzen, nekazaritza-lurzatiak desmuntatzen eta jatorrizko ekosistemak suntsitzen ari baitira, eta, gainera, landako langile asko sarrera-iturririk gabe uzten ari dira, kaleko baldintzetan.

Kriminalizatuen artean honako hauek daude:

- Oscar René Martínez Iglesias, El Salvadorko Antzinako Herrien Borrokak Integratzeko Mugimendu Indigena MILPAren sortzailea. 2023ko ekainaren 9an harrapatu zuten, El Icacal hondartzan arrantza-lanak egitetik itzuli zenean.
- Leví César Morales, El Salvadorko Antzinako Herrien Borrokak Integratzeko Mugimendu Indigena MILPAko Silverio Morales lider indigenaren semea. 2022ko azaroaren 11n harrapatu zuten, eta 2024ko maiatzaren 14an askatu zuten baldintza fisiko eta psikologiko larrietan, askatzeko agindua eman eta 15 egunera.
- Benjamín Castillo, El Salvadorko Antzinako Herriak Integratzeko Mugimendu Indigenaren kide sortzailea, 2024ko otsailaren 8an harrapatua.
- José Iván Arévalo Gómez, herri indigenen eta bizitza-lurraldeen eskubideen liderra eta defendatzailea, Nahuat hizkuntzaren irakaslea (El Salvadorren bizi den hizkuntza indigena bakarra, 200 hiztun baino apur bat gehiago dituen). Arévalo Gómez abuztuaren 29ko (osteguna) goizaldeko 2:00etatik irailaren 3ra egon zen atxilotuta, legez kanpoko erakundeetan parte zuelakoan.

6 EL SALVADORKO ERAKUNDE PUBLIKOEKIN IZANDAKO TRUKEAK

Euskal Ordezkaritzak bilerak eskatu zituen herrialdeko zenbait erakunderekin, El Salvadorko erakundeek eta gizarte-mugimenduaren balorazioak eta eskaerak entzuteko, bai eta arlo horretan duten jarrera ezagutzeko ere. Bakar-bakarrik izan genituen bilerak Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioarekin, Lehen Haurtzaroaren, Umearoaren eta Nerabezaroaren Kontseilu Nazionalarekin (CONAPINA) eta Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzarekin. Nazioko Fiskaltza Nagusiak bilera bertan behera utzi zuen. Gainerako erakundeek ez zioten gure eskaerari erantzun.

Giza eskubideen aldeko erakundeek jakinarazi digute herrialdeko erakundeek ez dituztela entzun nahi beren salaketak eta ez dutela nahi elkartzeko eta elkarrizketarako gunerik ireki. Hori gabezia demokratiko handia da, eta oso kaltegarria da haien eskubideetarako. Are larriagoa da, nazioarteko erakundeetara jotzeko, barne-baliabide guztiak agortu behar direnean.

Erakundeei helarazi dizkiegu aurreko atalean aipatutako analisiak, eskaerak eta kezkak. Jarraian, izandako topaketetan hitz egindakoaren laburpena emango dugu.

LANEKO ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO MINISTERIOA

Haren eginkizuna da lan-harremanen politikak formulatu, gauzatu eta gainbegiratzea; lana ikuskatzea; laneko segurtasuna eta higiena; laneko ingurumena; gizarte-aurreikuspena eta -ongizatea; lan-migrazioak; eta sektoreko enpleguko, gizarte-segurantzako, lanbide-heziketako eta kooperatibetako politikak sustatzea, koordinatzea eta haien diseinuan parte hartzea. Era berean, kontzertazio sozialeko eta hiru alderdiko partaidetzako prozesua bultzatzea eta sostengatzea.

Ministerioaren ordezkariak jakinarazi digute beren ekintzak eskumenak esleitzen dizkien araudiaren barruan kokatzen direla, besteak beste, ikuskapena, langileen eskubideen bermea (zuzenbide sindikala barne) eta kontziliazioa (elkarrizketa lan-gatazkak prebenitzeko tresna gisa). Esparru horretan, lan-kontratu guztiak erregistratzeko politika bat bultzatu da, bai eta kaleratze bidegabeen kasuan kalte-ordainerako eskubidea sartzeko

lege-erreforma bat ere. LANEren gomendioak abian jarri dira eta laneko arriskuen eta istripuen prebentzioa bultzatu da.

Sektore publikoan prozedura irregularrak dituzten 25.000 kaleratze baino gehiagori (2019-2024) eta sindikatu-forua duten zuzendari sindikalen kaleratzeei dagokienez, eskumen-esparrura jotzen dute (sektore pribatura mugatzen da haien eskumena), eta egungo lan-errealitateari erantzuten ez dion lan-kode bat aipatzen dute.

Emakume transexualen kaleratzeei dagokienez, plataforma digital batean sistematizatu dituzte zerbitzuak. Plataforma horretan, salaketak jasotzen dira, eta talde zaurgarri gisa sailkatu dira. Sektore pribatuak eta publikoak ez dute salaketarik jarri. Baina gogorarazi dute, azken kasu horretan, ez dutela eskumenik.

Sektore publikoan haurdun dauden emakumeak kaleratzeari dagokionez, erakunde publiko bakoitzeko Zerbitzu Zibilaren Batzordea da organo eskuduna. Sektore pribatuan zerbitzu integrala eskaintzen da: ikuskapenak egiten dira kontziliazio-ikuspegiarekin, enpresak zigortu beharrean, langileak berriro instalatuko direla bermatzeko. Berriz instalatzen ez bada, zehapen-araubidera jotzen da. Gainera, ama ezkongabeak laneratzeko programa bat eta SOS Mujer atari espezifiko bat bultzatu dira, indarkeria- eta jazarpen-egoerak prebenitzeko, LANEren indarkeria eta jazarpena ezabatzeari buruzko 190. hitzarmenaren esparruan.

Kredentzialak emateko atzerapenei dagokienez, 2022ko maiatzean LANEk egindako hiru alderdiko misio baten ondoren egindako aurrerapenen berri eman digute. Laguntza teknikoei esker, arreta sindikalerako bulego bat sortu zen, eta kredentzialak entregatzeko epea 8 egunera murriztu zen. Atzerapenak gertatzen direla onartzen dute, baina haiek bulegora laguntza eske joaten ez diren sindikatuetan gertatzen dira, erakunde sindikaletan hauteskunde-prozesua gaizki eratu dutelako.

LANEren esparruan, jakinarazi dute azken urteotan dagozkion txostenak aurkeztu direla araudia betetzeko batzordeetan. Hiru alderdiko kontsultari (elkarrietzeta soziala) buruzko 144. hitzarmenari dagokionez, zailtasunak eta funtzionamendua eten den aldi batzuk aitortzen dituzte, baina instituzionalizatu gabeko hiru alderdiko elkarrietzeta eta prestakuntzak sustatu dituztela gehitu dute. Askatasun sindikalari eta sindikatuko kide izateko eskubidearen babesari buruzko 87. hitzarmenaren kasuan, azken urteetan kexak enplegatzaileek egin

badituzte ere, azken urtean langileen kexak aurkeztu dira bi arrazoiengatik: kredentzialak eta bi lider sindikal ohien hilketa argitzea. Ondorioztatu zen ez zirela gertatu gai sindikalengatik, eta haietako bat gaizkile-taldeekin lotuta zegoela.

Ministerioak langileei LANEren topaketetan parte hartzeko eman diezaiekeen laguntzari buruz galdetuta, horretarako zailtasun handiagoak dituztenez, 2021ean sortutako Unidad Sindical Salvadoreña delakoa aipatu dute, agente horren lanpostua, horretara behartuta egon gabe, Ministeriotik bete baita.

Salbuespen-erregimenaren esparruan sindikalistak eta sindikatuen zuzendaritzetako kideak atxilotzeari dagokionez, ziurtatu dute askatasunez sindikatzea bermatzen dutela eta atxiloketa horiek delitu-egitateren bat egitearekin lotuta daudela, ez askatasun sindikala mugatzeko helburuarekin. Adierazi dute sindikalista guztiak espetxetik atera zituztela eta, organo judizialen jarduna oztopatu ezin izan arren, ministroak babesa eman zuela berehala askatzeko. Ez dute eremu horretako atxiloketen erregistrorik, erakunde eskuduna Segurtasun Ministerioa delako, eta ez dakite datu segmentatuak dauden ala ez. Eta gogorarazi dute salbuespen-erregimena gaizkile-taldeekin desartikulazioari lotuta dagoela.



Euskal Ordezkaritza Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioarekin

Biztanleriaren % 70 sektore informalean ari da lanean, erakundeek emandako datuen arabera, eta eremu horretan lan-eskubideak bermatzeko ezarritako neurrien artean lan-merkatuari buruzko informazio-sistema bat izateko egindako inbertsioa nabarmentzen da, bigarrena Latinoamerikan. Datu-iturri ofiziala da, eta % 44,7ko informaltasuna eman du 2023an.

Saltzaile ibiltarien edo nekazaritzako langileen utzarazpenei dagokienez, meatzaritzaren hedapenaren esparruan, eskumenen gaia aipatzen dute berriz ere, baina sektore informalari mesede egiten dioten autoenplegu-politiken bultzada aipatzen dute.

Azkenik, azukrearen sektorean, eraikuntzan eta mangladietan haurren lana desagerrarazteko Ministerioak egin duen ahaleginaren berri eman dute.

LEHEN HAURTZAROAREN, UMEAROAREN ETA NERABEZAROAREN KONTSEILU NAZIONALA (CONAPINA)

CONAPINA lehen haurtzaroaren, umearoaren eta nerabezaroaren eskubideak zuzentzen dituen erakundea da. Haurren eta nerabeen eskubideak bermatzen ditu, familiarekiko, Estatuarekiko eta gizartearekiko erantzukidetasunean, Babes Sistema Nazionala artikulatuz eta babes-mekanismoen bidez defentsa eraginkorra eginez eta politikak, planak eta programak bultzatuz. Erakundearen lana Gabriela Bukele lehenengo damaren Bulegoarekin koordinatuta egiten da.

Zuzendariak, erakundeko bi langilerekin batera, duela gutxi Crecer Juntos Legearen bidez sortutako erakunde berri hau aurkeztu digu. Lege horrek Haurren eta Nerabeen Garapen Integralerako Salvadorko Institutua (ISNA) eta Haurren eta Nerabeen Kontseilu Nazionala (CONNA) bat egitea dakar. Lege berriaren aurrerapen batzuk adierazi dituzte: lehen haurtzaroa sartzea (0-6 urte), babes-sistema nazionala indartzea eta prebentzio-politikak eta eskubideak eta zaintzak berrezartzeko politikak ezartzea.

Adierazi dutenez, gaizkile-taldeen arazoa desagerrarazi ondoren, herrialdeko arazoen jatorria ikusten hasi ziren. Haurrak eta nerabeak familia batean baleude bezala sentitzen ziren gaizkile-taldeetan. Hala ere, indarkeria hori kenduta, beste herrialde batean hazten ari dira. Bat datoz Gabriela Bukele lehen damaren esaldi honekin: *"Hasieratik ondo hasiko gara"*, erakundearen prebentzio-politikaren adibide gisa.

8 harrera-zentro eta gizarteratzeko 4 zentro dituzte. Azken horietan 1.400 plaza daude, eta 647 daude beteta. Zentro horietan delitu mota desberdinak egin

dituzten adingabeak bizi dira. Lanbide-prestakuntzak eskaintzen zaizkie, Hezkuntza Ministerioaren ziurtagiria dutenak, eta hitzarmenak ere badituzte unibertsitateekin. Haurrek eta nerabeek jendeari saltzen zaizkion lanak egiten dituzte, batez ere eskulanak. CONAPINAK kudeatzen du bildutako dirua, eta adingabeak zentroetatik ateratzen direnean itzultzen du.

Ordezkaritza kezkatuta dago giza eskubideen aldeko erakundeek ematen dituzten datuekin; izan ere, datu horien arabera, askatasuna galdua duten 3.000 adingabe helduen espetxeetan daude; CONAPINaren ordezkariak, ordea, ukatu egin dute errealitate hori. Adingabeak amarekin kartzeletan egon daitezkeen adin-mugari buruz galdetuta, aitortu dute 5 urtera artekoa dela eta egoera hori gertatzen ari dela. Hala ere, Crecer Juntos Institutuak programa ludikoak egiten ditu CONAPINarekin moduluetatik kanpo, eta Lehen Haurtzaroaren Arretarako Zentroak (CAPI) daude zentroetan bertan edo haietatik kanpo, eta haur horiek zentro horietara joaten dira egunero. Amek adingabeak eman ditzakete, eta zentro batera joaten dira, non haiek ezin baitira egon. Hala ere, ezkutu gisa erabiltzen dituzte, haietara ez bideratzeko.

Aitortzen dute gai hori kezagarria dela erakundeentzat, baina ez datoz bat datuekin, eta harrituta agertu dira Human Rights Watch-en (HRW) txostenagatik¹⁴. Txosten horren arabera, erakundeak Estatu Batuetako agintariei adierazi zien 3.319 ume atxilotu zituztela 2022ko martxotik 2023ko Abendura, eta haietatik 841 atxilotuta zeuden 2024ko urtarrilean (262 behin-behineko atxilotetan eta 579 kondena betetzen). Txostenak erakusten duenez, haietako askok ez zuten ageriko loturarik gaizkile-taldeekin, eta atxilotetan tratu txarrak gertatu zirela diote, eta, kasu batzuetan, tortura-ekintzak ere bai. Kartzela-aldiaren baldintzak ere salatzen dira: jende-pilaketa, elikadura falta, osasun-arreta egokirik ez izatea eta familia-kontaktu eza. CONAPINako zuzendariaren arabera, datuak egunkarietatik aterata zeuden; izan ere, HRWk ez zuen zentroetara bisitarik egin, aldeaz aurretik abisatu gabe egiteko asmoa zuelako. Zuzendariak jakinarazi du, segurtasunagatik, bisita-ordutegiak erakundeak onartu behar dituela.

El Salvadorko giza eskubideen beste erakunde batzuek CONAPINaren jarduna salatu dute¹⁵. 2024ko abuztuaren 8an, salaketa jarri zen Fiskaltza Nagusiaren aurrean, «*egintza arbitrarioen eta betebeharrak ez betetzearen delituak egiteagatik, ez baitzen erantzunik eman gurasoak harrapatzeagatik edo hiltzeagatik umezurtz geratu diren haurren eta adingabeen heriotzen aurrean*». UNIDEHCen arabera, gutxienez 918 adingabe daude egoera deitoragarrian, beren amekin batera kartzelan, erregimenak atxilotuak.

[14] <https://www.hrw.org/es/report/2024/07/16/su-hijo-no-existe-aqui/violaciones-de-derechos-humanos-de-ninos-ninas-y>.

[15] https://amp.dw.com/es/se%C3%Blalan-al-conapina-tras-muertes-en-c%C3%A1rceles-de-el-salvador/a-69895156#amp_tf=De%20%251%24s&aoh=17380982960207&referrer=https%3A%2F%2Fwww.google.com

Analfabetismoak gora egiteari eta ikastetxeak ixteagatik eta hezkuntzako inbertsioa murrizteagatik lehen eta bigarren hezkuntzan sartzeko zailtasunei dagokienez, CONAPINA 600 eskolaren ixtea ikuskatzen ari da. Berrikuntzak egiteko itxiera da, ez da behin betiko itxiera. 2025eko otsailean 75 irekiko dira, eta gainerakoak ekainean. Eragindako umeak inguruko zentroetan birkokatzen dira edo ordenagailu edo tableta bat ematen zaie eskolak linean jarraitzeko. Eskoletako erreformak presoek egiten dituzte "Yo cambio" programaren barruan.

Giza eskubideen aldeko erakundeen erregistroan, guraso bat edo biak atxilotzeagatik abandonatuta dauden 60.000 adingabe daude, erakundeen laguntzarik gabe. Gainerako erakundeek bezala, gogorarazi dute salbuespen-erregimena gaizkile-taldeak jazartzeko aplikatzen dela. Ezarri zenean, CONAPINA informazioa eskatzen hasi zen, atxilotuek beren kargura adingabeak zituzten zehazteko eta datu-base bat egiteko. Epaitegiek CONAPINARI jakinarazten diote ea adingaberik badagoen pertsona helduen atxilotetak gertatzen direnean, jardunbide egokitzat jotzen dutenez gero. 65.000 adingabe daude egoera horretan, baina identifikatuta eta estalita daude.

Azkenik, STGen sexu-osasun integraleko eta prebentzioko prestakuntza-programei dagokienez, adierazi dute Nazio Batuen Biztanleria Funtsarekin (UNFPA) lan egiten dutela prebentzioaren arloan, baina Osasun Ministerioaren eskumena dela. Ikuspegia ez da antisorgailuen erabilera sustatzea, beste bat baizik. Baina eskuragarri daude.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO PROKURADORETZA (PDDH)

PDDHk Konstituzioaren Agindua betetzen du, hau da, Giza Eskubideen errespetua eta bermea zaintzea, Administrazio Publikoak pertsonen aurrean egiten duen jarduna ikuskatuz, babes-, sustapen- eta hezkuntza-ekintzen bidez, Zuzenbide Estatuari lagunduz eta Bake Kultura osatuz.

Sindikatu-mugimenduarekin, mugimendu feministarekin, salbuespen-erregimenaren biktimekin (MOVIR) edo ama bilatzaileekin egindako bileretan, Ordezkaritzak salaketa eta kezka asko jaso ditu, eta adierazi du ez dagoela salatzeke eta herritarrak babesteko mekanismorik. Biktimak eta haien senideak babesgabetasun-egoeran daude, eta ezi dute inongo erakundetara jo. Kontaera batzuek herrialdeko barne-gatazka armatuaren garaikoak dakarzkigute gogora.

Erakundeek adierazi dutenez, giza eskubideen urraketak komunikabideen eta giza eskubideen erakundeen salaketen bidez ezagutzen dira; prokuradoreak ez du ezertxo ere egiten, kontara ofizialarekin batera kokatuta. PDDHk sortutako txostenek jaso diren salaketei buruzko estatistikak biltzen dituzte, bai eta egiaztapenen emaitzak ere, non argibideak ematen baitira salbuespen-erregimenaren eta askatasunaz gabetzeko baldintzen pean atxilotutako pertsonen eskubideak ez betetzeari buruz. Hala ere, lan horren aurrerapenak edo emaitzak ez dira argitaratu edo zabaldu, eta, oro har, erakundeek eta gizarte-mugimenduak uste dute Giza Eskubideen Programa ez dela aktore izan giza eskubideen urraketa larrien salaketa ugarien aurrean.

Prokuradoreak, erakundearen beste ordezkari batekin batera, Euskal Ordezkaritzari harrera egingo dio. Honako hauei buruzko informazioa eskatu diogu: giza eskubideen urraketen ikerketei emandako bultzada eta biktimei eta senideei laguntzeko ezarritako neurriak; Giza Eskubideen Euskal Programak jasotako salaketen prozedura eta tipologia; Beatriz kasuan CoIDHk emandako epaiari buruzko balorazioa, eta El Salvadorko estatuak egin behar dituen gomendioak ezartzeko planen diseinua.

Prokuradorearen ustez, gure eskaera guztiei erantzuteko, kontuan hartu behar dugu herrialdea muturreko indarkeria-egoera batean bizi dela, eta horrek justifikatzen ditu gobernu-ekintza eta hartutako neurriak.

Erakundeek kontabilizatzen dituzten salbuespen-erregimenaren esparruan egindako 85.000 atxilotetarik, prokuradoreak adierazi du atxiloteta irregularren 4.000 salaketa daudela. Haietatik 2.000 ebazteke daude oraindik.

Espetxeen egoerari dagokionez, aurrerapausoak eman dira osasunaren arloan: gaixotasun infekziosoak desagerrarazi dira; elikadurari dagokionez, lehen, espetxeetan kontrolik ez zegoenez, gaizkile-taldekoek janaria lapurtzen zieten preso arruntei. Aitortzen du askatasun-kartak dituzten pertsonak espetxean daudela, bai eta jende-pilaketa dagoela ere, «*munduko herrialde guztietan gertatzen den bezala*».

Ikerketa-bulkadak eta senideei laguntzeko neurriak direla eta, prokuradoreak seinalamendu larria egin die giza eskubideen erakundeei, "*agenda bikoitzak*" eta biktimak "*manipulatzea*" leporatuta. Manipulazio-akusazioak Beatriz kasuari buruzko CoIDHren epaiari buruzko baloraziora hedatzen dira. El Salvador herrialde ona dela dio, non abortua ez baita eskubide bat, bizitzeko eskubidea sortze beretik aitortzen baita. Dioenez, kasu faltsua da, mediatikoki manipulaturik eta nazioarteko erakundeek eta "*jaio gabeko haurrak hiltzeko eskubidea*" duten herrialdeek finantzaturik dagoelako.

7 GOMENDIOAK

Euskal Ordezkaritzak uste du, giza eskubideen aldeko eskualdeko eta nazioarteko erakundeek eta entitateek egin duten bezala, estatuen betebeharra dela giza eskubideen nazioarteko eta eskualdeko esparrua betetzea eta esparru horretatik sortzen diren gomendioak eta epaiak, estatuek zaintzen baitute funtzionamendu demokratikoa eta herritarren giza eskubideen errespetua.

Besteak beste, garrantzitsua da estatuek 2025eko urtarrileko Aldizkako Azterketa Unibertsalean (EPV) emandako gomendioak inplementatzea, edo *Beatriz eta Beste batzuk Vs El Salvador* kasutik eratortzen den arau-esparrua hartzea.

SALBUESPUEN-ERREGIMENA AMAITZEA ETA IKERKETAK ABIARAZTEA

Premiazkoa da **salbuespen-erregimena amaitzea eta etendako konstituzio-eskubideak eta -bermeak berrezartzea**. Salbuespenezko mekanismo bat ezin da bihurtu segurtasuneko politika publikoaren estrategia iraunkor, eta ezin ditu baliogabetu Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioaren 8. artikuluan jasotako lege-prozesu egokiaren printzipioen esparruan eta haren barruan baliatu behar diren ezinbesteko berme judizialak (El Salvador konbentzio horren parte da). Gainera, kriminalitatearen murrizketarekin eta herrialdeko gaizkile-taldeen indarkeriazko eraginarekin, ez dago arrazoirik neurri hori luzatzen jarraitzeko.

Ordezkaritza honek herrialdera egindako bisitan jasotako salaketen larritasuna ikusita, uste dugu salbuespen-erregimena amaitzearekin batera **ikerketak egin behar direla benetan zer gertatu den argitzeko eta egindako giza eskubideen urraketen aurrean instituzioek eta banakoek dituzten erantzukizunak argitzeko**. Indarkeria horiek, kasu askotan, gizateriaren aurkako krimenak izan daitezke, hala nola desagerpen behartuak edo zaintzapeko heriotzak. Biktimek eta haien senitartekoek eskura izan behar dituzte egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermeetarako mekanismoak.

El Salvadorko giza eskubideen aldeko erakundeen aldarrikapenarekin bat egiten dugu: *"Salbuespen-erregimena ez da segurtasun-eredu arrakastatsua, eta ez litzateke halakotzat hartu behar, biktimak aintzat hartu eta erreparazioa jasoko duten gizarteak lortu nahi dituzten herrialde demokratikoentzat"*. Eta CIDHeK emandako ondorioei dagokienez: *"Gezurrezko dilema dago kriminalitate antolatuari aurre egiteko ekintza eraginkorrak hartzearen eta estatuak giza eskubideen arloan dituen legezko eta nazioarteko betebeharrak betetzearen artean"*.

GIZA ESKUBIDEAK ETA HAIEN BALIATZEKO BERMEAK ERRESPETATZEA ETA BETETZEA

Giza eskubideen defendatzaileak, haien erakundeak eta kolektiboak babestea

Dei egiten dugu politika publikoak lehenbailehen abiaraz daitezen, giza eskubideak defendatu ahal izateko, pentsamendu kritikoa, kazetaritza, oposizio politikoa eta protesta-eskubidea bermatuz. Premiazkoa da seinalamenduak, indarkeria-ekintzak eta bidezko lanaren aurkako desprestigio- eta kriminalizazio-kanpainak amaitzea.

Hala, herrialdeko erakundeei eskatzen diegu sindikatu-askatasuna eta -forua errespetatu ditzatela, prozesu egokirik gabe kaleratutako langileen eskubideak itzul ditzatela, eta lege-esparru bat izan dezatela, sindikatuen aurkako indarkeria-ekintzak azkar eta disuasio-moduan zehatzeko.

Emakumeen eta LGTBIQ+ herritarren sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak errespetatzearen alde egiten dugu, eta, beraz, haien aurkako eta mugimendu feministen eta sexu-aniztasunaren aurkako indarkeria askoren oinarri diren diskurtso misoginoak eta LGTBIfobikoak ezabatzearen alde gaude. Eskatzen dugu amai daitezela meatze-hedapenaren eta beste erauzketa-proiektu batzuen aurrean lurra, lurraldea eta ondasun komunak defendatzen dituzten landa-komunitateen aurkako erasoak, erdigunean jarriz ingurumen osasungarriarekiko eta ura izateko giza eskubidearekiko errespetua.

Azkenik, eskatzen dugu lurraldeetan ura eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea bermatzeko, erauzketa-megaproiektuak ezartzearen aurka, hala nola metal-meatzaritza edo turismo-azpiegitura eta -proiektu handiak.

Emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea babestea

Gomendatzen dugu benetan betetzea, gaur egungo baldintzetan, Emakumeen aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzarako Lege Berezi Integrala (LEIV), emakumeek justizia- eta erreparazio-mekanismoak izango dituztela bermatuz, bereziki justiziarako sarbidean, feminizidio-kasuetan. Lege hori eta Gobernuak lantzen ari den Berdintasunaren, Ekitatearen eta Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerraraztearen Legea aldatzeak, EBren finantzaketarekin eta laguntzarekin, emakumeen giza eskubideetan eta indarkeria matxisten aurkako borrokan atzera egitea ekarriko du.

Gure indar guztiarekin eskatzen dugu Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CoIDH) Beatriz eta Beste batzuk Vs El Salvador kasuan emandako epaitik eratorritako gomendioak betetzea, araudi bat abian jarritz, emakumeen bizitza eta osasuna arriskuan jartzen duten haurdunaldien aurrean beharrezkoa dena.

Herritarren giza eskubideak errespetatzen eta bermatzen dituzten arau-esparruak eta politika publikoak sortzea, batez ere haur eta nerabeen eta LGTBIQ+ biztanleen kasuan

Beharrezkoa da haurren eta nerabeen bizitza duina bermatuko duten giza eskubideen eta politika publikoen nazioarteko estandarrekin bat datozen arau-esparruak garatzea, salbuespen-erregimenaren esparruan gurasoetako baten edo bien banantzea bizi izan duten 100.000 haur eta nerabe ingururen abandonu eta bizi-prekarietate egoerari erantzutea ahalbidetuko duten premiazko neurriak hartuz, haien eskubideak itzultzen saiatuz.

Gazteek herrialdean eta LGTBIQ+ameritan pertsonak bizi duten diskriminazio-egoera, nazioarteko estandarretan oinarritutako arau-esparruak eta politika publikoak garatzea, giza eskubideak babesteko eta sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko indarkeriak eta diskriminazioak desagerrarazteko. Esparru horretan, Euskal Ordezkaritzak adierazi nahi du bereziki kezkatuta dagoela emakume transexualen aurkako indarkeriagatik.

ASKATASUNA GALDU DUTEN HERRITARREN ESKUBIDEAK, BERME JUDIZIALAK ETA PROZESU EGOKIA ERRESPETATZEA

Premiazkotzat jotzen dugu prozesu egokia bermatzea, askatasuna galdua duten pertsonen bizitza eta osotasuna babestea, zaintzapean hildakoen kasuan kontuak ematea eta gertakari horiei buruzko estatu-erantzukizunaren ikerketa egokia egitea, espetxeetan dagoen krisi humanitarioa kontuan hartuta

eta bidegabeki atxilotutako pertsonen osasun fisiko, emozional eta ekonomikoan askatasun-gabetzeak eragindako kalte larrien aurrean ez errepikatzea konpentsatu, konpondu eta bermatuko duen politika publiko bat sortuz.



Azkenik, ordezkaritza honek adi jarraituko du NARE-Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programan parte hartu duten giza eskubideen erakundeen eta gizarte-mugimenduen egoera, bai eta bisitan zehar topaketa- eta elkarrizketa-espazioak izan dituzten erakundeen egoera. Esparru horretan, Santa Marta eta Fidel Zavalaren 5 defendatzaileen egoerari jarraitzen ari gara.

Azken horren kasuan, 2025eko martxoaren 7an, bidegabeki atxilotu zutenez, ordezkaritza honek komunikatu publiko bat zabaldu zuen, El Salvadorko erakundeei egindako eskaera batzuekin, eta berriz ere txosten honetan helarazi diegu:

- Presaz kasu egin diezaiotela bere aldeko kautela-neurrien eskaerari.
- Fidel Zavalak zuzenbidearen araberako prozesu judiziala izateko ezarritako legezko berme juridiko guztiak izatea.
- Familiak bere egoeraren berri izatea eta, legeak ezartzen duen moduan, egoera hori ezagutzeko eta, hala badagokio, familia-bisita izateko aukera izatea.
- Bereziki zaintzea haien osotasun fisikoa; izan ere, beren familia- eta gizarte-inguruneak beldur dira beren bizitzarengatik, eta susmatzen dute atxiloketa hori errepresalia gisa erabil dezaketela 2024an El Salvadorko espetxe-sistemari egindako salaketa publikoek.

8 ERREFERENTZIAK

Equipo Maíz elkarte (2025). *Balance económico 5 años del Gobierno Bukele (2019-2024) - Bukeleren Gobernuaren 5 urteko balantze ekonomikoa (2019-2024)*.

Equipo Maíz elkarte (2025). *Balance económico 5 años del Gobierno Bukele (2019-2024) - Bukeleren Gobernuaren 5 urteko balantze ekonomikoa (2019-2024)*.

Equipo Maíz elkarte (2025). *Balance político 5 años del Gobierno Bukele (2019-2024) - Bukeleren Gobernuaren 5 urteko balantze politikoa (2019-2024)*.

Comisión Interamericana de Derechos Humanos - CIDH (2024) - Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra - CIDH (2024). *OEA/Ser.L/V/II Doc. 24-97. Estado de excepción y derechos humanos en El Salvador - El Salvadorko salbuespen-egoera eta giza eskubideak*.

Cristosal (2024). *El silencio no es opción - Isiltasuna ez da aukera*.

IM-Defensoras (2024). *Datos que nos duelen, redes que nos salvan - Min ematen diguten datuak, salbatzen gaituzten sareak. 10+ años de agresiones contra defensoras de derechos humanos en Mesoamérica (2012-2023) - 10 urte baino gehiago erasoak pairatzen giza eskubideen defendatzaileek Mesoamerikan (2012-2023)*.

Las Dignas, Las Mélicas, ORMUSA (2024). *Informe sobre la situación de los derechos humanos de las mujeres en El Salvador (2012-2022) - El Salvadorko emakumeen giza eskubideen egoerari buruzko txostena (2012-2022)*.

Mesa por el Derecho a Defender Derechos (2024). *Informe de agresiones contra personas defensoras y periodistas: análisis de casos 2023 - Defendatzaileen eta kazetarien aurkako erasoei buruzko txostena: kasuen azterketa 2023*.

Unidad de Defensa de Derechos Humanos y Comunitarios (UNIDEHC) (2024). *Informe sobre la violación al derecho a la salud en los centros penales del país - Herrialdeko zentro penaletan osasunerako eskubidea urratzeari buruzko txostena*.

Unidad de Defensa de Derechos Humanos y Comunitarios (UNIDEHC) (2024). *Informe sobre la violación al derecho a la salud en los centros penales del país - Herrialdeko zentro penaletan osasunerako eskubidea urratzeari buruzko txostena.*

Unidad Nacional para la Defensa de la Clase Trabajadora (UNT) (2025). *Informe de la situación de Defensoras y Defensores de Derechos Humanos en El Salvador - El Salvadorko Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko Txostena.*

VV.OO. (2024). *El modelo Bukele: seguridad sin derechos humanos - Bukele eredua: segurtasuna giza eskubiderik gabe. El Salvador a dos años del régimen de excepción - El Salvador, salbuespen-erregimenetik bi urtera.*

VV.OO. (2024). *Informe de organizaciones de sociedad civil para el cuarto ciclo del Examen Periódico Universal (EPU) a El Salvador - Gizarte zibileko erakundeek txostena, Aldizkako Azterketa Unibertsalaren laugarren ziklorako, El Salvadorren. Situación de las personas defensoras de derechos humanos, periodistas y operadores de justicia en El Salvador - Giza eskubideen defendatzaileen, kazetarien eta justizia-operadoreen egoera El Salvadorren.*

9 1. ERANSKINA

SALBUESPEN-ERREGIMENA APLIKATZEAREN ONDORIOZ, SINDIKATUETAKO BURUAK ESPETXERATZEAREN KASU NAGUSIAK

- Dolores Almendares, Cuscatancingo barrutiko Alkatetzako buruzagi sindikala eta El Salvadorko Langileen Konfederazio Nazionaleko buruzagi nazionala. 2022ko maiatzaren 7an harrapatu zuten, maiatzaren leko ibilbidean parte hartu ondoren. Zazpi hilabetez egon zen askatasunik gabe, eta abenduaren 6an irten zen, ordezeko neurriekin. Bere prozesuak aurrera jarraitzen du.
- Giovanni Antonio Aguirre, San Salvadorko Alkatetzaren Sindikatuko eta gizarte-mugimenduko kidea, 2022ko maiatzaren 8an harrapatua, maiatzaren leko martxaren ondoren. Hiru askatasun-agindu ditu, baina kartzeletako agintariek ez dute entregatu nahi, eta ez dakigu non dagoen.
- José Leónidas Bonilla Torres, Mejicanos barrutiko alkatetzako buruzagi sindikala, 2022ko apirilaren 26an atxilotu zuten bere etxean. Giltzurruneko gaixotasuna, diabetesa eta hipertentsioa zituen, eta gaitz kroniko horiek ez zizkioten tratatu, La Esperanzako kartzelan, "Mariona" izenekoan, atxilotuta egon zen bitartean. Urte bereko irailaren 3an hil zen Rosales ospitalean. Autopsiak agerian utzi zuen gorputzak politraumatismoa zuela, oinetan zauriak zituela eta nekrosia barean eta pankrean. Hori torturen, eta tratu krudel eta apalesgarrien seinale izan liteke.
- Rodolfo Pereira, Asociación Nacional de Trabajadores Independientes, Vendedores Estacionarios Ambulantes Salvadoreños ANTRAIVEASEko liderra eta Alianza Nacional El Salvador en Paz elkarteko kidea, 2022ko ekainaren 6an atxilotu zuten. Aste horretan, prentsaurreko baterako deia egina zuen Soyapango hiriko saltzaileak utzarazteko mehatxua salatzeko. Gaur egun, askatasunik gabe dago.
- David Melquisedec Castillo, Portuko Batzorde Betearazle Autonomoko langilea eta Sindicato de Trabajadores de la Industria Portuaria de El Salvador sindikatuko idazkari nagusia, 2022ko maiatzaren 17an harrapatu zuten. Ondoan zituen David Castillo eta Francisco Ayala, SITICOREkoak, eta Óscar Bolaños, ANDAko Langileen Sindikatukoa. Atxilotu eta ordu batzuk

geroago aske utzi zituzten. David Melquisedec 2022ko ekainaren 21ean berriro harrapatu zuten beste kargu batzuegatik, eta askatasunik gabe jarraitzen du.

- Leví César Morales, Movimiento Unificado Indígena mugimenduko Silverio Morales lider indigenaren semea, 2022ko azaroaren 11n harrapatu zuten, eta 2022ko maiatzaren 14an askatasuna berreskuratu zuen kautelazko neurriekin.
- Miguel Ventura, San Markos barrutiko alkatetzako sindikalista, 2023ko urtarrilaren 3an atxilotu zuten, udal hartan abenduan beti ematen zen onura ekonomiko bat eman zedila erreklamatzeagatik. Nayib Bukele presidentek zuzenean seinalatu zuen X sare sozilean. Gaur egun atxilotuta dago.
- Ana Joma, Edwin Lobez eta Ovidio Hernández, Soyapangoko alkatetzako Langileen Sindikatuko (SITRASOYA) kideak, 2023ko urtarrilaren 11n harrapatu zituzten, 2022ko abenduko soldatak eta gabonsariak erreklamatzeagatik. 15 egun geroago, askatu egin zituzten. Atxiloketaren ordezkoko neurrien pean jarraitzen dute haien prozesuek.
- Emilia de Paz Santa Maria, Inprenta Nazionaleko Sindikatuko idazkari nagusia; Veraliz Martinez, Emakumearen idazkaria; Esteban Galdámez, antolaketako idazkaria; Sergio Ramos, afiliatua; eta José Abraham Torres, Zuzendaritza Batzordeko kidea. 2023ko otsailaren 2an atxilotu zituzten lanuzte bat egiteagatik (otsailaren 1ean eta 2an), gerenteetako baten jarreragatik protestatzeko. Agintarien arabera, horrekin "*programatutako jardueren garapen osoari eragin zioten*". Otsailaren 21ean aske utzi zituzten, atxiloketaren ordezkoko neurrien pean, eta prozesuek aurrera jarraitzen dute.
- Benjamín Castillo, Movimiento Indígena para la Integración de los Pueblos Ancestrales de El Salvador mugimenduaren sortzaileetako bat, 2023ko otsailaren 8an harrapatu zutena. Askatasunik gabe jarraitzen du.
- Patricio Pinedak, Mesa de Trabajo por una Pensión Digna mahaiko koordinatzaileak, 2024ko otsailaren 22an salatu zuen Polizia Nazional Zibileko kideak harrapatzen saiatu zirela, langileek presidentearen etxera egin zuten mobilizazio bateko buru ibili ondoren.
- Alberto Monge, FOSALUDEko Osasun Langileen Sindikatuko idazkari nagusia; Eduardo Alvarenga, Gobernu Etikako Auzitegiko Langileen Sindikatuko idazkari nagusia; Daniel Rodríguez, Maisuen Sindikatuko Antolaketako

idazkaria; Luis Humberto Ortega, Biltzar Legegileko Sindikatuko idazkari nagusia; Claudia Liduvina Escobar, Informazio Publikoaren Sarbiderako Institutuko ordezkaria, sindikatuetaordezkaria institutuan eta Lan Ministerioko Langileen Sindikatuko idazkari nagusi ohia; herrialdetik irten behar izan dute errepresalien beldur, eta gaur egun erbestean daude.

10 2. ERANSKINA

EUSKAL ORDEZKARITZAREN KOMUNIKATUA, EL SALVADORKO GIZA ESKUBIDEEN EGOERAREN JARRAIPENA EGITEKO

San Salvador, 2025eko urtarrilaren 30a

Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta giza eskubideen eta lankidetzaren euskal erakundeek osatutako euskal ordezkaritza batek El Salvador bisitatu du urtarrilaren 25etik 30era, NARE-Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programan parte hartu duten pertsonen eta kolektiboen egoeraren jarraipena egiteko. Misio horren helburua da EAEn 2023an eta 2024an hartutako pertsonen egoera pertsonalaren eta antolakuntzakoaren jarraipena egitea, eta EAEko erakundeek eta antolakundeek giza eskubideen aldeko prozesuei ematen dieten babesa ikusaraztea.

Euskal Ordezkaritza bildu da NAREn hartutako pertsonetako bi kide diren erakundeekin: Las Incómodas Feministas kolektiboa eta Lan Justiziaren aldeko Mahai Iraunkorra. Halaber, bilerak egin ditu beste erakunde sindikal batzuekin, mugimendu feministarekin, LGTBIQ+ pertsonen defentsarako erakundeekin, giza eskubideen aldeko erakundeekin, kazetariekin, ingurumenaren eta lurraldearen defendatzaileekin, salbuespen-erregimenaren biktimekin, ama bilatzaileekin eta erakunde akademikoekin.

Topaketa horien ondoren, agenda bat garatu da nazioarteko erakundeekin, kidego diplomatikoarekin eta herrialdeko erakundeekin, eta aurrez jasotako eskaera, kezka eta proposamen nagusiak helarazi zaizkie. Elkarriazketa-espazioak ezarri dira Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin (OACNUDH), Espainiako Enbaxadarekin, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin (AECID), Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioarekin, Lehen Haurtzaro, Umearo eta Nerabezaroko Kontseilu Nazionalarekin (CONAPINA) eta Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzarekin. Eskatu zen Estatuko beste erakunde batzuekin bilerak egiteko, baina ez zuten erantzunik eman.

Euskal Ordezkaritzak eskerrak ematen dizkie guztiei beren harreragatik eta harreragatik. Honako hauek osatzen dute ordezkaritza: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, Eusko Legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta Bakerako Lankidetzar Batzarrea (BLB), Bakea eta Elkartasuna Euskadi Fundazioa eta Zehar-Errefuxiatuekin izeneko erakundeak.

Euskal Ordezkaritzak bisitaldian egindako topaketa eta bileretan egiaztatu duenez, gaur egun mina, sufrimendua eta indarkeria konstante bat dira herrialdearen eguneroko bizitzan, giza eskubideen aldeko nazioarteko erakunde eta organismo batzuen zenbait txostenek dioten bezala.

Egoera horren aurrean, gure **BABESA eta ELKARTASUNA** adierazi nahi diegu gurekin bildu diren erakunde sozial guztiei. Aitortzen dugu zilegitasunez jardun dutela giza eskubideen, bizitza duinaren eta zigorgabetasunaren aurkako borrokaren defentsan.

Hona hemen gure **KEZKA**:

- 2022ko martxoaren 27an hasi zen salbuespen-erregimen honi eutsi egiten zaio, eta, jakinarazpen hau egin den egunera arte 34 luzapen izan ditu. Gaizkile-taldeak jazartzeko diseinatutako neurri horren salbuespen-izaera gizarte zibil antolatua kriminalizatzeko erabiltzen ari dira, eta demokrazia eta zuzenbide-estatua sistematikoki eta etengabe ahultzen ari dira, konstituzio-berme oro indargabetzeaz gain.
- Desagerpenak eta atxiloketa arbitrarioak eta masiboak, prozesu-bermerik gabeak, prozedura judizialean: errugabetasun-presuntziorako eskubidea ez betetzearen bidez prozesu penala instrumentalizatzea, egotzitako egitateei eta delituei buruzko informaziorik ez ematea, komunikazioen sekretua urratzea, bizilekua berme judizialik gabe bortxatzea, behin-behineko espetxeratzeaz abusatzea eta abokatuaren defentsarako zailtasunak, besteak beste.
- Espetxeetan bizi duten krisi humanitarioa. Lekukotzak bildu ditugu jende-pilaketei, tratu anker eta apalesgarriei, torturari, osasungaiztasun-egoerei, familiekin edozein komunikazio mota izateko bidea ukatzeari, zaintzaileen (espetxeetako funtzionarioak) usteltzeari, mediku-laguntzarik ezari, emakumeen aurkako indarkeriari eta askatasun-baimenen ondoren

espetxea mantentzeko buruz. Hau da, askatasuna galdu duten pertsonen eskubideen bermerik eza, pertsona horien duintasunaren aurka eginez.

- Sistema publikoak okerrera egin du, hezkuntzan eta osasunean egindako inbertsioa nabarmen murriztuz eta gastu militarra eta lehendakaritzakoa handituz. Gainera, funtzionario asko kaleratuak izan dira, eta horrek askotan sindikatuen forua urratzen du.
- Babesgabetasuna eta herrialdean giza eskubideak defendatzeko bermerik eza, eta espazio zibikoa ixtea. Ildo horretan aipatu nahi ditugu mugimendu feministari eta LGTBQ+ biztanleriari, mugimendu sindikalari eta lurraldearen eta ingurumenaren defentsari egindako erasoak.
- Pertsonen eskubideak kentzen dituen legeria ezartzea, hala nola Metal-meatzaritzaren Lege Orokorra, Metal-meatzaritzaren Debekuaren Legea ezabatzen duena, zeinak bermatzen baitzituen ingurumen osasungarrirako eskubidea, lurraldean bizitza duina izateko eskubidea eta ura izateko giza eskubidea.
- Atzerakada handia neskatoen, emakumeen eta LGTBQ+ biztanleriaren eskubide eta askatasunetan, arau-esparru eta politika publiko oso murriztaileen bidez, mehatxu-faktore nagusitzat identifikatuz eskubideen aurkako politika ultrakontserbatzaileak.
- Gardentasunik eta informazio publikorako sarbiderik eza, Informazio Publikoaren Sarbiderako Legeari egindako erreformarekin.
- Adierazpen-askatasunaren eta informazio askearen aurkako erasoak, hala nola kazetarien, komunikabideen eta protesta publikoetan parte hartzen duten pertsonen jazarpena.
- Bereziki kezkarriak dira haur eta nerabeen babesgabetasuna, haurren lan-esplotazioa, muturreko pobretze-egoera eta hezkuntza-sistema publikorako sarbiderik eza; horiek guztiak funtsezko gaiak dira sistema demokratiko baten eraikuntzan.

ETA HAU GOMENDATZEN DUGU:

- Giza eskubideen nazioarteko eta eskualdeko esparrua betetzea, bai eta esparru horretatik sortzen diren gomendioak eta epaiak ere.

- Salbuespen-erregimenari amaiera ematea, herritarren eskubide eta berme konstituzionalak itzultzeko.
- Giza eskubideen defendatzaileak eta haien erakundeak eta kolektiboak babestea, pentsamendu kritikoa eta oposizio politikoa bermatuz.
- Prozesu judiziala behar diren bermeekin berrezartzea.
- Ikerketak bultzatzea desagertutako pertsonen kasurako eta senideei akonpainamendua egitea.
- Emakumeen aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzarako Lege Berezi Integrala (LEIV) benetan betetzea, gaur egungo baldintzetan, bai eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren (CoIDH) epaia betetzea ere, Beatrizen kasuan.
- Arau-esparruak garatzea ume eta nerabeen eta LGTBIQ+ pertsonen bizitza duina bermatuko duten giza eskubideen nazioarteko estandarrekin eta politika publikoekin bat datozenak.
- Askatasuna eta foru sindikala errespetatzea, eta prozesu egokirik gabe kaleratutako langileen eskubideak itzultzea.
- Lurraldeetako bizitza duina errespetatzea, ura eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea bermatuz erauzketa-megaproiektuak ezartzearen kontra, hala nola metal-meatzaritza edo azpiegitura handiak.

KONPROMISOAK:

Euskal Ordezkaritza konprometituta dago Giza Eskubideen eta Bakearen defentsarekin, NARE-Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa eta beste laguntza- eta elkartasun-tresna batzuk indartuz.

Argi adierazten du mekanismo guztiak garatzeko guztiz prest dagoela gizarte, ingurumen, sindikatu eta genero arloko justiziarekin herrialde baketsu batean bizitzearen alde egunero egiten duten erakunde, komunitate eta kolektiboek laguntzen jarraitzeko.



nare

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA
DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

2025eko martxoa